

DATORRENA

Ametsak eta energia

AIORA ZABALA > 3

ALINA DANET, ikertzailea:
«Emakume gazteak inoiz baino
feministagoak dira» > 22

2026ko otsailaren 28a | XX. urtea • 968. zenbakia
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



KOOP57, AURREZKIAK
JENDARTEA ERALDATZEKO

AURREZKIEK EZ DUTE MUNDUA ALDATZEN. MUNDUA AURREZKI HORIEK FINANTZATZEN DITUZTEN PROIEKTUEK
ALDATZEN DUTE. HORREKIN KONBENTZITUTA, 10 URTE DARAMA LANEAN KOOP57 KOOPERATIBAK. > 12

Jon URBE | FOKU

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.

Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxe: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



4



8



16



Artikoa munduko ardatz geopolitiko bilakatu da 04

Bigarren Mundu Gerrako euskal beteranoak gogoratzeko oroigarria jarriko dute Nevadan 08

Koop57, hamarkada bat ekonomia sozial eraldatzailea lantzen 12

Gastronomiaren antropologia: Gazta maisua 16

Osasun leihoa: Medikuen haustura emozionala osasun sistemarekin 18

Alina Danet: «Joko arauak aldatzen ari dira komunikazio politikoan» 22

In fraganti: Andoni Arzallus 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



27

SINADURAK:

- 03 **Aiora Zabala:** Ametsak eta energia
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Termodinamika
- 11 **Lur Albizu Etxetxipia:** Zenbakiez eta lehentasunez
- 20 **Naia Tolosa eta Klara Smith:** Espetxea egokia al da haur baten atxikimendua garatzeko?
- 21 **Mijo Lizarزابuru:** Sasi-marxisten noraez liberala
- 25 **Maidar Iantzi Goienetxe:** Graziak eta desgraziak
- 25 **Xabier Mikel Errekondo:** Mina
- 26 **Amaia Ballesteros**
- 30 **Ainhoa Alvarez Arana:** Ikaste-analitika: Ikasleen arrasto digitalak ulertzen



{ datorrena } Aiora ZABALA

Ametsak eta energia

A mets berriek argia dakarte egoera ilunetara. Kemena dakarte aurrera ekiteko eta itxaropena mantentzeko. Hala ekartzen digu gogora martxoak 3ko gertakarien bosgarren hamarkada oroitzeko sortutako abestiak. Lelo ederra da ez bakarrik giza sarraskiei aurre egiteko, baizik eta bizitzako hainbat zailtasunetarako, eta honakoan bizitza modu zabalean irudikatzen dut: planetaren, gure etxearen, bizitza.

Gai hauetan adi dabilzanentzat, kritika, aurkakotasuna, ñimiñotasuna eta ezintasuna sorraraz ditzaketen berriak agertzen dira egunero. Erraza da ezkor bilakatzea: klima berotzen ari dela eta botere handiek jarraitzen dutela erregai fosilen erauzketa eta errekuntza bultzatzen; pestizidak eta beste agrokimikoak nolanahi hedatzearen ondorioz ekosistemen aniztasuna xahutzen dela. Eta beste hainbat.

Halaber, Erresuma Batuan (eta beste hainbat tokitan) klima-kafe uneak, *climate cafés*, deritzenak hasi dira zabaltzen: bakoitzak klima arazoei buruz sentitzen eta pentsatzen duguna adierazteko espazio lagungarria dira, elkarrekin hausnartzeko eta elkarri entzuteko, apropos prestatutako psikologoak gainbegiratura.

Ipar izarri bezala, ingurumenari buruzko berri eta gertaera positiboei distira berezia darie. Iaz, Europan, iturri berriztagarriek (haizea eta eguzkia) erregai fosilek baino elektrizitate gehiago ekoitzi zuten. Mundu mailan, ekoizpen kuantitatean berriztagarriak ikatzarekin parekatu dira (ikatzak izan baita iaz arte elektrizitate iturri nagusia). 2000. urtetik hona, haizea eta eguzkia portzentajearen nabarmen hazi dira, eta nuklearra zein fosilak murriztu.

Teknologia trantsizio historikoen datuen grafikoak aztertu dituztenek, energia iturrien proportzioen azkenaldiko bilakaeran irudi ezaguna ikusiko dute: teknologia batzuen gorakada esponenzialaren hasiera eta beste batzuen hutsaltasunaren hastapena. Prozesuan, energia ekoizpenaren merkatu-kuoten bilakaera ikusita, botere kontzentrazioa murriztu da. Oihartzuna duten hainbat ekarpen juridiko garrantzitsu ere lortu berri dira klima justizian: Nazioarteko Justizia Auzitegiak iaz adierazi zuen estatuek klima aldaketaren aurka jar-

dun behar dutela legez, auzi berrien ateak irekiz. Energia efizientziari dagokionez, negutegi efektuko isuriak murrizteko potentzialaren zati xume bat besterik ez da jorratu oraindik.

Aurreko batean esan bezala, Erresuma Batuan 2024ko urrian itxi zen elektrizitatea ekoizteko azken ikatz zentrala. 1980ko hamarkadan elektrizitatearen %80 ekoiztetik itxierara arteko prozesu konplexuan, irakurketa baliagarria dago gure aurrean daukagun erronka bideratzeko. Ikatzen desagerpena ez zuen faktore bakanak bultzatu, baizik eta politikak, ekonomiak, teknologiak eta mugimendu zibilak norabide berean egindako hainbat urratsek.

Bideratze horretan hiru gako daude. Lehenik, joera globala positiboa bada ere, berriztagarriek bide luzea dute oraindik erregai fosilak gelditzeko, bereziki elektrizitateaz bestelako energietan. Bigarrenik, eraldaketa nahikoa azkarra izango den ikustear dago. Azkenik, eraldaketa sozio-tekniko guztietan bezala, zuhurtzia eta herriaren jabetasuna behar dira herriarentzat eta lurarentzat nahigabeko ondorioz gerta ez dadin.

Zenbait zirkulu esanguratsutan “net-zero” terminoa “bi gradu azpi” esamoldearekin ordezkatzen hasi dira.

Haize bolada geopolitiko biziak egon arren, gero eta errealistagoa da klima aldaketari aurre egin ahal izatea

Lehena klima aldaketa ahalik eta gehien murrizteko deia da. Bigarrenak, berriz, klima aldaketa nabarmena onar dezakegula dio, galera ekonomiko eta galera planetarioen arteko ustezko kalkulu baten ondoren (!). Net-zero bel-durra piztu dezake batzuegan: klima aldaketa geldiarazteko beharrezko inbertsioak eta arrisku ekonomikoak handiegiztat ematen dituztelako, klima aldaketaren ondorioen galerak gutxietsi bitartean. Edo, besterik gabe, beldur direlako besteen eta naturaren kontura kapital pribatua metatzeko ahalmena desagertuko zaiela.

Baina azken urteetako garapenek erakusten dute klima aldaketa murriztearen aldeko norabidea posible dela, amets egin dezakegula eta amets hori ez dela ilusio hutsa, bide errealista baizik. •

DATORREN MUNDUA

Artikoaren kontrola lortzea, potentzien egungo estrategien ardatz

Geografia historiaren agertokia aztertzen duen zientzia da». Horrela saiatu zen Immanuel Kant Lurra-ren gainazalaren konfigurazioak gizateriaren bilakaeran duen garrantzia azpimarrazten. Hamarkadetan zehar plaza publikotik aldenduta eta ikuspegi soziologiko, politiko edo ekonomikoetan oinarritutako tesiek baztertuta egon ondoren, geografia berriro itzuli da nazioarteko agendaren lehen lerrora. Itogune estrategikoak, urruneko uharteak, itsas kanal giltzarrien kontrola edo lurraldeen erreklamazio geoestrategikoak dira gaur egungo *realpolitik*-aren adierazle. Donald Trump boterera itzultzearekin lotu bada ere, ikuspegi hori funtsezkoa izan da Vladimir Putinentzat ere. Azken batean, Errusiaren kokapen geografikoak inguruan duen guztia, zeharkatzen duen guztia edo gainetik igarotzen den guztia kontuan hartzera behartzen du Putin ere.

Ikuspegi berritu horrek, uki-garria eta gizakiaren ekintzak nekez alda dezakeena lehenes-teko joerak, «mundu berri» baten ateak irekitzen dituela dirudi —bere garaian Amerika kontinentea izan zen bezala—. Bada, munduko buruzagiek, desiraren eta kezkaeren artean, Planetako eskualderik ezezagunenetako baten etorkizunari begiratzen diote: Artikoari. Gerra Hotzean eremu giltzarri izan zen, bertatik igaro beharko bailirateke buru-nuklearrak Sobietar Batasunera edo Ameriketako Estatu Batuetara iritsi aurretik. Hala ere, hamarkadetan zehar gutxi izan dira eskualde urrun horretan boterea hedatzeko be-

 **GEOPOLITIKA** / Markel DE BILBAO CATEDIANO

Klima aldaketak, baliabide naturalen eskaerak eta potentzia handien arteko lehiak Artikoa munduko ardatz geopolitiko bilakatu dute. Segurtasuna, gobernantza eta bizimodu indigena etengabeko elkarreraginean dauden eskualdean, ikusteke dago etorkizuna lehiaren edo adostasunaren gainean eraikiko den.

netako ahalegina egin duten liderrak. Urte osoan zehar tenperatura oso baxuak ditu —neguan -43 eta -26 gradu artean, batez beste -34 gradu; udan, berriz, 0 gradu inguru—, eta hori oztopo handiegia izan da potentzia handientzat. Urtearen zati handi batean izoztuta egonik, nabigaziorako desegokiak diren urek ere gobernuak eta multinazionalak urrundu dituzte Errusia, Kanada, Norvegia, Danimarka (Groenlandia) eta AEBko kostaldeetatik. Baina egoera aldatzen ari da.

Klima aldaketaren ondorioz, eskualdearen bira geopolitiko nabarmena da. Tenperaturaren igoera izotz-urtzea azkartzen eta bankisa murrizten ari da —eskualde polarretan itsasoko ura izoztean sortzen den izotz flotatzailea—. Horrek Artikoa gero eta eskuragarriago bihurtzen du. 2019ko udaberria eta uda, 1979az geroztik beroenetakoak izan ziren, eta ekaineko eta abuztuko batez besteko tenperaturak 3 eta 4 gradu zentigradura arte igo ziren. Zientzialariek ez dute baztertzen etorkizunean uda garaian Artikoa izotzik gabe geratzea. Berotze atmosferikoak udaberriko elur-geruza murrizten du eta udazkeneko elurraren hedadura eta iraupena laburtzen.

Aldi berean, Artikoa aukera ekonomiko gero eta handia-

goen eremu bihurtzen ari da, baliabide naturalen ustiapenagatik: mineral estrategikoak, gasa eta oraindik erauzi gabeko petrolioak. Kalkuluen arabera, munduan aurkitu gabeko petrolioaren %13, gas naturalaren %30, diamanteen %26,8, paladioaren %40, platinaren %15, kobaltoaren %11, nikelen %10,6, tungstenoaren %9, zinkaren %8, kobreaken

%3,8, urreaken %3,2, burdinaren %2,3 eta ikatzaren %2,1 Artikoan egon liteke.

Orain arte, eta oraingoz, Errusiaren presentzia nagusitu da eskualdean. Kostalde artiko luzeena du, eta base militarrek, portuek eta batez ere 40-50 izotz-hauslez osatutako flotak —AEBk hiru besterik ez ditu— «etorkizuneko itsasoaren» benetako agintari bihurtzen dute munduko herrialderik handiena. Hala ere, beste herri batzuek ere gero eta interes handiagoa dute eskualdean; horren adibide dira AEBko presidente Trump-ek Groenlandiari gainean adierazitako asmoak.

«Mundu berri» baten promesa aurrekoa sostengatu zuen ekosistemaren suntsipenean oinarritu daitekeela dirudi. Artikotik zehar ireki litekeen itsasbideak Asiaren eta

USCGC Healy (WAGB-20) izotz-hauslea, Errusiako bandera duen Renda petrolio-ontziaren inguruan, Nometik (Alaska) 400 kilometro hegoaldera, 2012ko urtarrilean. AEBko Estatu Departamentua | WIKIPEDIA



Europaren arteko garraio-denbora 40 egunetik 18-20 egunera murriztuz lezake, Suezko kanalaren aldean astebete baino gehiago aurreztuz. “Zetaren bide polarrak” distantziak 4.000 itsas milia arte laburtuko lituzke. Aurkitu eta erauzteko dauden baliabide naturale-tatik harago, Artikoa jada ez da etorkizuneko auzia soilik, baizik eta potentzia handien segurtasun nazionaleko egungo estrategien parte.

IZOZTE GLOBALAREN ATZERAKADA
Kristobal Kolon izan bazen gaizki izendatutako 1492ko “mundu berriaren” protagonista nagusia, Artikoa-aren kasuan, Errege-erregina Katoli-

Aurkitu eta erauzteko dauden baliabideetatik harago, Artikoa jada ez da etorkizuneko auzia soilik, baizik eta potentzia handien segurtasun nazionaleko egungo estrategien parte

Klima aldaketa ardatz, «mundu berri» baten promesa aurrekoa sostengatu zuen ekosistemaren suntsipenean oinarritu daitekeela dirudi

koak bazterrean geratzen dira eta zientzialariak sartzen dira jokoan: klima aldaketak zehaztuko du eskualdearen eta munduaren bilakaera.

Aipatutako berotzeak lurraldearen balio geostrategikoa areagotzen du. Azken hamarkadetako satelite bidezko irudiek izotz-geruza artikoa-aren murrizketa nabarmena erakusten dute. Zientzialari batzuek diote baliabide naturalen us-tiapienak Artikoa-aren izotz-ur-tzea bizkortuko duela eta, ondorioz, haren garrantzia areagotu egingo dela. Ondorioak ez dira eskualdera mugatuko: Maldivak, Bangladesh edo Herbehereak bezalako lurraldeek itsas mailaren igoera pairatuko dute, uholdeak eguneroko arazo bihurtuz.

Artikoan, berotze hori “albedo efektua” deritzon fenomenoan islatzen da. Gainazalek eguzki-argia islatzeko duten gaitasunari egiten dio erreferentzia. Gainazal argiek energia handi bat atmosferara itzultzen dute (albedo altua); ilunek, berriz, energia xurgatu eta bero bihurtzen dute (albedo baxua). Lurreko izotza urtu eta tundra agerian geratzen den heinean –zuhaitzik gabeko bioma hotz eta lehorra, permafrosta eta haize bortitzak dituen–, izotzaren iluntzea bizkortzen duten faktoreak agertzen dira. Izotzaren gai-



nean metatzen diren hondakin industrialek azalera termoislatzailea murrizten dute, eta desizoztearen erritmoa handitu. Trantsizio horrek, negatiboa izan arren, flora naturalaren eta laboreen hazkundea ere ekar lezake, tokiko biztanleriari onurak eskainiz.

Hala ere, desizoztearen ondorio nagusiak dira eskualdearen garrantziaren benetako arrazoia. Izotz-geruzaren murrizketak merkataritza iraul dezaketen itsasbide berriak ireki ditzake eta gaur egun giltzarritzat jotzen diren portuen mapa aldatu. Iparraldeko Itsasbidea, Ipar-mendebaldeko Pasabidea eta Bide Transpolarra eraldaketa ekonomiko global baten ardatz izan daitezke.

Iparraldeko Itsasbidea da guztien artean aurreratuen:

Errusiako kostaldea zeharkatzen du eta Txinako ekialdea Europa mendebaldearekin lotu. Shanghaitik Anberesera doan bidea %40 arte laburragoa izan daiteke Suezko kanalaren aldean, 7.000 kilometro gutxiagorekin. Horrek itsasoan denbora gutxiago ematea, erregaia aurrezte eta kostu logistikoaren murrizketa ekarriko lituzke. Gainera, Hego Txinako itsasoa, Somaliako kostaldea edo Malakako itsasarte bezalako gune gatazka-tsua saihestuko lituzke. Hala ere, batez ere udan da nabigarria. Kanadako Artikoa-ko katutako Ipar-mendebaldeko Pasabideak, bestalde, %15 laburtu lezake AEBn eta Asiaren arteko distantzia. Hori bai, arriskutsuena da. Bide Transpolarra, azkenik, Bering itsasartetik GIUK korridoreraino



Svalbardoko Munduko
Hazien Ganga da munduko
hazi-biltegiarik handiena.
Bada, goiko argazkian,
hazien laginak gordetzeko
erabiltzen dituzten kutxak
ikus daitezke.
Darg ENDRESEN | WIKIPEDIA



(Groenlandia, Islandia eta Erresuma Batua), oraindik ez da nabigagarria.

Klima aldaketak, itsasbide berriak irekitzeaz gain, munduko kapital handiei inbertsio aukerak ere eskain diezazkieke baliabide naturaletan. Artikoa munduko aurkitu gabeko petrolioaren %13 eta gas naturalaren %30 inguru har lezake, baita lur arraroak, nikela, kobalto, burdina edo ikatza bezalako mineral kritiko ugari ere.

Estatu artikoen artean, Errusia da baliabide gehien dituen, eta, beraz, ustiapen posibleetatik etekin handiena aterako lukeena. 2022ra arte, dituen hidrokarburo erreserben %40 inguru baino ez zituen esploratu, eta oraindik milioika upel petrolio eta gas aurkitzeko dituela kalkulitzen da, batez ere Mendebaldeko Siberian eta Errusiako plataforma kontinentalean, Barents eta Kara itsasoetan barne.

Erreserbak erreserba, baliabideak ustiatzeko interesa areagotu egingo da etorkizunean, eta itsasbide berrietan ontziek zeharkatzen dituzten uren mugak gatazka-iturri izango dira. Horregatik, foro multilateralen eta dagoeneko sortutako erakundeen rola erabakigarria izango da datozen urteetan.

GUZTIAK INTERESDUN

Historian zehar, Artikoa arau eta gobernantza-egitura for-

Artikoaren mapa eta zona nagusiak.
Sémhur | WIKIPEDIA COMMONS

Estatu artikoen artean, Errusia da baliabide gehien dituen, eta, beraz, ustiapen posibleetatik etekin handiena aterako lukeena. Petrolio batez ere errusiar lurretan dago

Ukrainaren 2022ko inbasioak Errusiarekiko lankidetzaren etetea ekarri zuen Artikoko Kontseiluan, erakundearen balizko eraginkortasuna ezerezean utziz

malizatu gutxi izan ditu. Gerra Hotzaren ondoren hasi ziren lankidetzaren esparru bat eraikitzeko lehen ahaleginak. Erakunde nagusien artean daude Artikoko Kontseilua eta, erreferentzia juridiko gisa, Itsas Zuzenbideari Buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (UNCLOS).

Artikoko Kontseiluak zortzi estatu artikoak biltzen ditu (Errusia, Kanada, Norvegia, Danimarka/Groenlandia, AEB, Finlandia, Islandia eta Suedia), bai eta sei erakunde indigena ere. Kontseiluaren helburuak ingurumenaren babesa, garapen iraunkorra eta ikerketa zientifikoa sustatzea dira. Hala ere, ez du erabaki loteslerik hartzeko ahalmenik, baliabide ekonomiko mugatuak ditu eta segurtasun militarra bere mandatutik kanpo dago. 2011n Arctic Security Forces Roundtable foroa sortu zen hutsune hori betetzeko. 2014an, Krimenaren anexioaren ondoren, Errusia baztertu zuten foro horretatik. Ukrainaren 2022ko inbasioak, berriz, Errusiarekiko lankidetzaren etetea ekarri zuen Artikoko Kontseiluan, erakundearen balizko eragin-kortasuna ezerezean utziz.

Bestalde, UNCLOSek itsas erreklamazioetarako marko juridikoa ezartzen du 1994. urteaz geroztik. Bost estatu artikoak –Kanada, Danimarka, AEB, Norvegia eta Errusia– beren eremu ekonomiko eskusiboetan eskubideak dituzte, baina araubide uniformeak ez da beti egokitzen Artikoko berezitasunetara. Zabalik daude oraindik Ipar-mendebaldeko Pasabidearen estatusa, Beaufort itsasoko mugaketa, Bering itsasoko desadostasunak edo Hans uhartearen subiranotasuna bezalako auziak.

Testuinguru horretan, Europar Batasunak rol anbigua

du. Behatzaile iraunkor izateko egindako eskaerak blokeatuta daude, eta «gonbidatu iraunkor» estatusa baino ez du. Klima politikak eta ikerketa polarra sustatzen baditu ere, bere eragin instituzionala mugatua da gero eta estrategikoagoa den eskualdean.

BERTAKOAK

Hedabideen argietatik eta interes geoestrategikoetatik urrun badago ere, Artikoa ez da lurralde basatia eta hutsa, potentziek nahi dutena egiteko eskualdea. Lau milioi pertsona inguru bizi dira bertan, horietatik %10 herri indigenetako kideak –inuitak, samiak edo nenetsak, besteak beste–. Indigenek beren eskubide historikoen aitortza, elikadura subiranotasuna eta baliabideen kudeaketan parte-hartze eraginkorra eskatzen dute, estatuen eta potentzien presio ekonomiko eta militarren aurrean. Klima aldaketak eta potentzietatik heldutako multinazionalen bultzatutako hedapen industrialak, indigenen bizimodu tradizionala arriskuan jartzen dute. Indigenen funtsezko aldarrikapenetako bat da beren lurraldeetan proiektuak baimentzeko alde aurretiko eta informatutako baimen librea izateko eskubidea.

Horren eredu Taimyrko penintsulan bizi diren herriak dira. Taimyr penintsulako iparraldeko muturrean bost herri indigenek “Taimyrko Boskotea” osatzen dute: dolganak, nenetsak, nganasanok, evenkiak eta entseak. Talde bakoitzak hizkuntza eta kosmobisio propioa ditu, baina eguneroko bizikidetzak elkarren arteko nortasun partekatua sendotu du. Guztien kulturaren bihotzean elur-oreina dago: elikagai, garraio, jantzi eta diru itu-

rri nagusia da, eta askatasuna sinbolo ere bai. Hala ere, populazioa gainbeheran dago; 2003an ia 600.000 baziren, 2023an 107.000 inguru baino ez ziren. Adituek ohartarazi dute kopurua muga kritikotik behera jaits daitekeela.

Gainbeheraren arrazoiak anitzak dira. Petrolio eta gas ustiapenaren hedapena, kutsadura, ehiza ilegalaren areagotzea eta klima aldaketa. Artikoa mundua baino bi aldiz azkarrago berotzen ari da, eta Taimyrren are nabarmenagoa da; permafrostaren urtzeak eta likenen desagerpenak migrazio-bideak aldatzen dituzte. 2020ko Norilскеko diesel-isuriak arrantza ere kolpatu zuen, familien elikadura arriskuan jarritz.

Hezkuntzan, iragan sobietarreko barnetegiek, haurrak familietatik urrundu zituzten. Azken urteotan, eskola nomadak eta “hizkuntza-habia” proiektuak abiatu dira, enets bezalako hizkuntzak biziberritzeko. Hala ere, transmisio etena eta baliabide urriak mehatxu dira oraindik.

Testuinguru geopolitikoak ere eragina du: Artikoa zortzi estatutan banatzen da, eta Ukrainako gerraren ondoren elkarren arteko lankidetzak ahuldu da, batez ere Errusiaren isolamenduagatik. Militarizazioa handitu egin da, eta Iparraldeko Itsasbidearen garapenak presio berriak sortu ditu. Taimyrko herrientzat, ordea, krisia ez da soilik politikoa edo ekologikoa: beren bizimoduaren eta milaka urteko kulturen etorkizuna dago jokoan.

AHOTSA ALA INDARRA

Artikoaren egoera egungo testuinguru geopolitikoaren isla da. Herrialde bakoitzak bere presentzia estrategikoa eta se-

gurtasun nazionalako interesak lehenesten ditu, eta horrek elkarrekin lan egiteko bideak ahultzen ditu. Artikoko Kontseiluak, eskumen mugatuak dituen eta Errusiaren boikotak ahuldu duena, gobernantza inklusiboaren bideak mantentzeko zailtasuna islatzen du. Eskualdean militarizazio progresiboa eta estrategikoa antzeman daiteke, baliabideengatik lehiak eta subiranotasunarekin lotutako eztabaidek bultzatuta. Errusia izan da gidari nagusia, azpiegitura militarrek berraktibatuz eta zabaldua, eta horrek AEB, NATO eta beste herrialde artikoen erantzuna eragin du, Gerra Hotzaren garaiko tentsioak gogoraraziz. Aldi berean, Txinak eskualdean eragina sendotu nahi du, zientzia eta merkataritza erabilita, eta horrek harreman multilateralak konplexuago egiten ditu.

Artikoak nazioarteko ordena berriaren tentsioak islatzen di-

Klima aldaketak eta potentzietatik heldutako multinazionalen bultzatutako hedapen industrialak, indigenen bizimodu tradizionala arriskuan jartzen dute Artikoa

Artikoa lankidetzak sakonago baterantz bideratu daiteke, edo gatazka latenteko egoera batean murgildu, non lehia eta lurralde-kontrola nagusituko diren eztabaida politikoan

tu: segurtasun militarra eta baliabide estrategikoetara sarbidea lehentasunezko elementuak dira, eta horrek, jakina, eskualdearen paper globala berrantolatzen du. Epe luzeko ikuspegi batetik, eskualdea oreka ezegonkorren dago, lankidetzak eta talkak koexistitzen duten orekan. Etorkizuna irekia da oso: Artikoa lankidetzak sakonago baterantz bideratu daiteke, edo gatazka latenteko egoera batean murgildu, non lehiaren eta lurralde-kontrolaren logikak interes komu-

na gaingituko duen. Guztia bertako eta nazioarteko aktoeen gaitasunean oinarrituko da, tentsioak areagotu gabe kudeatzeko ahalmenean.

Epe ertain eta luzeko auzi gisa aurkezten bada ere, egungo nazioarteko dinamikek arriskuan jar dezakete foro multilateralen benetako erabakitze gaitasuna. Ikustear dago, beraz, Artikoa etorkizuna akordioaren bidez ala boterearen legearen arabera erabakiko den. Momentuz, badirudi boterea nagusi dela.



Orein-ehiztariak Dorset lurmuturretik gertu (Nunavut lurraldea, Kanada).
Ansgar WALK | WIKIPEDIA

EUSKAL BORROKALARIAK GOGOAN NEVADAN

AEBko Bigarren Mundu Gerrako euskal beteranoak gogoratzeko oroigarria

MEMORIA / Urtzi URRUTIKOETXEA

Historia handiko herri txikia da Gardnerville. Duela ia mende eta erdi sortu zuten Carson Valleyko bihotzean. Ordutik euskal artzainen, ostatuen eta euskal etxeen bidez eraikitako komunitate sendo bat hartu du, eta diasporako piknik ospakizun garrantzitsuenetako bat hartzen du urtero abuztuan. Orain, diasporaren beste kapitulu garrantzitsu bat idatziko da bertan: Bigarren Mundu Gerran faxismoaren aurka borrokatu ziren beterano euskal-amerikarren lehen memoriala hartuko du.

Memoriala Heritage Parken eraikiko da, garai batean euskal auzo bizia izan zen erdigune historikoan. “Bizi leku” izeneko diseinu kontzeptuala Maider Bezos Lanz arkitekto bilbotarrak egin du. Corten altzairuz egindako egiturak 2.150 gizon-emakumeren izenak jasoko ditu bertan; denek ere Bigarren Mundu Gerran Ameriketako Estatu Batuetako Armadan edo Itsas Merkataritzan zerbitzatu zuten 1939-1945 bitartean faxismoaren eta nazismoaren aurka.

Proiektua NABO Ipar Amerikako Euskal Elkaratek gidatu dute, eta oinarri zientifikoa Sancho de Beurko Elkartea elkartearen “Fighting Basques” ikerketak eman dio. Lan horren buru da Pedro J. Oiarzabal historialaria.

ISILDUTAKO BELAUNALDIA

Oiarzabalek azaldu duenez, ikerketa 2015ean abiatu zen, hasiera batean Nevadako artxi-boetan oinarritutako azterlan pilotu batekin. «Ia 300 beterano identifikatu genituen estatu bakarrean. Orduan ohartu ginen altxor historiko baten

aurrean geundela», dio. Metodologia zorrotz bati heldu zioten: estatuz estatu, konderri bakoitzean, erroldak, izen-emate agiriak eta artxibo militarrak gurutzatu dituzte urteotan. Hasierako kalkuluak 1.100-1.200 lagunengurukoak baziren ere, gaur egun ia bikoitza da: 2.150 izen dokumentatu dituzte. Horien artean, 260 baino gehiago Euskal Herrian jaiotako etorkinak ziren; Ameriketako Estatu Batuetako herritartasuna izan gabe ere armadan izena eman zuten. Izan zen faxismoa borrokatzetik iritsi eta hemen ere faxismoaren aurka ekin zionik, Pazifikoko zein Europan. Mario Salegi, adibide argiena.

«Gutxiengo baten gutxiengo dira», azpimarratu du Oiarzabalek. «Baina ekarpena egin zuten, eta memoria demokratikoaren parte dira. Haien izenak harrian jartzea justizia ariketa bat da». Historialariaren hitzetan, belaunaldi hori «ia inoiz ez da ageri historiako liburuetan». Euskara ikasi zuten etxean batzuek, eskolan ikasi zuten ingelesez. Gerrak mundura atera zituen; batzuk ez ziren sekula itzuli.

GARDNERVILLE, LEKU ESANGURATSUA

Euskal diasporan sarritan agertzen den izena da Gardnerville. Bertara iristen denak,


okertu dela ere pentsa lezake, hasiera batean sumatzen den herri txikiaren garrantziaz ohartu gabe. Carson City Nevadako hiriburuaren auzune dela ere pentsa liteke. Baina oso berezia da halaber, eta memorialerako proposatutako kokalekuak «oso harrera ona» izan du diasporaren barruan, Oiarzabalek dioenez.


NABOren batzarrean aurkeztu zutenean, «txalo zaparrada» jaso zuten. «Prozesua gardena eta irekia izan da. Epeak behar beste luzatu ditugu, iritzi guztiak entzun ditugu, eta azkenean,%90ek babestu dute hautagaitza».

Gardnerville kokapen estrategikoan dago, Kalifornia eta Nevada estatuen artean, eta Utah eta Idaho ere ez ditu urrun. Carson Valley bera turismoarekin indartsua da, Sierra Nevada mendilerroaren eta Tahoe aintziraren ondoan, eta Renoko nazioarteko aireportutik 60 kilometrotara dago. Nolabaiteko erdigunean egote horrek euskal diasporaren bi aldeak uztartzeko lana ere erraztu izan dio Gardner villeri. Kalifornian oro har baxenabartarrak dira nagusi, eta baztandar jatorrikoak ere ez dira gutxi. Idahon berriz, Lea-Artibai eta Bizkaiko inguruko eskualdeetatik iritsi ziren euskaldunak. Bien artean dago

Nevada, eta gaur egun ere, Idaho eta Kaliforniaren atzetik, euskal komunitaterik handienetakoa da.

Reno, Nevadako bigarren hiria Las Vegasen atzetik eta euskal ikasketen gunea, hurbil geratzen zaio Gardnervilleri. Bertan inauguratu zen, 1989an, euskal artzainaren monumentua, euskal migrazioari egindako aitortza publiko nagusia. Oiarzabalen ustez, Bigarren Mundu Gerrako memorialak «memoriaren paisaia» osatuko du,«migratzaileen lehen belaunaldia, haren ostean iritsi zen belaunaldi konprometituarekin lotuz. Artzain haien seme-alabek edo bilobek Ameriketako Estatu Batuak defendatu zituzten faxismoaren eta tota-





Bigarren Mundu Gerran faxismoaren aurka borrokatu ziren beterano euskal-amerikarren lehen memoriala inauguratuko dute abenduan Gardnerville herrian. Irudian, memorialak izango duen itxuraren erreprodukzioa. Pedro OIARZABAL

rarako amaitzea aurreikusten da. Udal batzordearen oniritzia jaso ondoren, lanak berehala has daitezke. Helburua da lehen harria maiatza baino lehen jartzea, funts bilketak ahalbidetzen badu.

Finantzaketa pribatua izan da orain arte ardatz nagusia: enpresak, senideak eta komunitateko kideak. «Laguntza oro da beharrezkoa», dio Oiarzabalek. «Ez dugu soilik iragenera begiratu nahi; etorkizunerako balioak berreskuratu nahi ditugu», gaineratu du.

Memorial fisikoarekin batera, oroigarri digital bat ere sortuko dute, argazki, biografia eta dokumentazio osagarriarekin, mugarik gabeko sarbidea eskainiz. Oiarzabalen hitzetan, «hau ez da iraganeko monumentu soil bat. Bakearen eta adiskidetzaren memoriala izan nahi du. 250 urteko harremanen testuinguruan, euskaldunak Ameriketako Estatu Batuetako historiaren parte direla gogorarazteko».

Ez da ahaztu behar, 2026an bi mende eta erdi betetzen direla 1776tik, hau da, Ameriketako Estatu Batuek Erresuma Batutik independentzia aldarrikatu eta metropoliaren aurkako gerra hasi zenetik. Oso testuinguru berezian dator urteurrena, mundu osoari eragiten dion eta herrialdea bera erabat polarizatzen duen presidente batekin. Baina horrek ere are garrantzitsuago bihurtzen du euskaldunen ekarpen txiki baina esanguratsua aurtzen gogora ekartzea.

Gardnervilleko plaza berrian, altzairuzko oroitarri batek eta eta bertan grabatutako 2.150 izenek belaunaldi oso baten sakrifizioa oroitaraziko dute. Isiltasunean bizi izan zen memoria bat behingoz ahots bihurtuko dute.

litarismoaren aurka. Euskal nortasuna galdu gabe, adopziozko herrialdea defendatu zuten».

KOMUNITATEA

Ikerketaren ondorioek eragin pertsonal eta kolektiboa izan dute. «Egunero jasotzen ditut mezu elektronikoak. Jendeak esaten digu bazekiela aita gerran aritu zela, baina ez zekiela xehetasunik; edo ez zekiela osabak ere, aitaren anaiak, parte hartu zuenik», azaldu du. Beterano askok ez zuten etxean inoiz gerrari buruz hitz egin. Euskaldun askoren berezko berba-urritasunari gerra-trauma gehitu zitzaion. «Familia batzuek orain ulertu dute zergatik esnatzen zen ai-

ta gauetan oihuka». Memoria-lak, beraz, oroimen kolektiboa ez ezik, familia-memoria ere sendatuko du.

Pedro Oiarzabalek lotura argia ikusten du gerrako beterano haien izaeraren eta handik urte gutxira sortu ziren euskal etheen sorreraren artean. Ez adin edo belaunaldi-gatik soilik, gerratik itzultzean zuten itzala eta ekintzailatza ere aintzat hartu behar dira.

Datu argigarri bat: Ameriketako Estatu Batuetako diasporako lehen topaketa garrantzitsutzat jo ohi den 1959ko Sparks-Renoko Western Basque Festival ospetsuan, bederatzi antolatzaileetatik bost Bigarren Mundu Gerrako beteranoak ziren. Alabaina, inon ez da datu

hori ageri. Haien gurasoak izan ziren Euskal Herria utzita Ameriketako Estatu Batuetara jo zutenak, lehen belaunaldiari egokitu ohi zaizkion zailtasunekin: hizkuntza ikastea eta lanik gogorrenak egitea, hurrengo belaunaldiak gauzak errazago izan zitzaizkien. Bigarren belaunaldia estatubatuarra zen, baina sustraiak ez ahazteaz gain hurrengoek ere ondare hori jasotzea nahi zuten. «Harro zeuden euskaldun izateaz, baina baita estatubatuar izateaz ere. Kulturaren transmisioa bermatu nahi zuten seme-alabentzat».

ETORKIZUNERA BEGIRA

Proiektua Gardnervilleko herri-lurren dohaintzari esker gauzatuko da, eta 2026 amaie-



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima
Arkitektoa

Termodinamika


Arkitekturaren kultureta hizkuntzan, azken «hit» adiera «termodinamika» da. Hitzaren ekarpen berria arkitekturari eskatzen zaion eraikinen energia kontsumoaren eta kostu energetikoaren gutxitze beharretik eratorzen da. Esaten da eraikin baten bizi zikloan kontsumitzen den energia totalaren heren bat eraikuntzaren obra-lanetan (izan berria edo zaharberritzea) xahutzen dela eta gainontzeko bi herenak eraikinaren erabileran eta mantentzean zehar (50 eta 75 urte bitarteko adina aurreikusten zaie eraikinei). Datuon esanahia serio hartuz gero, eraikuntzak, eta beraz arkitekturak, bere eginkizunen artean lehenetsi beharko luke energiaren trukaketarako soluzio eraginkor bat.

Termodinamikak eraikina energia trukatzailerik bezala ulertu nahi du, mugitzen ez den organismo bizi baten antzera. Batzuetan landare batekin konparaketa erabiltzen da eraikinaren funtzionamendua adierazgarri egiteko. Eraikinak bere bizimodua aurrera eramateko ezinbestean eguzkiarekin eta haizearekin erlazionatu behar du, ingurugiroaren aldaerara egokitzeko lanak egin beharko ditu. Formak eta egituraren diseinua lagun, eraikinaren atal desberdinek aukera izango dute egoera bakoitzera egokitzeko, performatibitatea ahalik eta eraginkorrenera izan dadin. Bide horrek arkitekturaren printzipioak zehazten ditu: forma, materia eta bentilazioaren kudeaketa. Eta ezin da esan printzipio berriak direnik, baizik eta energia komertziala merkea eta oparoa izan den garaian, arkitektura pentsatu eta egiteko unean beste helburu batzuk probatu direla eta energiaren kudeaketa bigarren mailako lana izan dela. Baina deskarbonizazioaren bideak ez du ihesbiderik eta ekonomia-sektore guztiak iraultza handi eta txikiak egin beharko dituzte etorkizun gertuan.

Termodinamikak eraikineko espazioak eta urtaro aldake-

tak harremanean jartzen ditu, eta, hala, ingurugiroaren baldintzen arabera diseinu-estrategiak eskatzen ditu. Termodinamikak giro aldakorrak eta tenperatura eta hezetasun egoerara egokitzen diren espazioak berreskuratu ditu arkitekturarako: galeriak, negutegiak, aireztapen gurutzatua baimentzen duten leihateak, tximinia patioak. Tramak arkitektoniko horietan, inertiarekin eta masako materialekin batera, bero eta haize mugimenduek ere elkarlanean jarduten dute.

Harrigarria dirudien arren, Estatu espainiarrean eraikinen eraikuntzan bete beharreko arautegi ofizialak, ez du eraikinaren performatibitatea kontuan hartzen energiaren aurrezpena bultzatzeko orduan, eta espazioen giroarekin eta atmosfera sistema egokituekin egitea bultzatzen du (teknologiaren eta energia berriztagarrien dependentzia dutenak). Azken batean, termodinamika oinarritzat duten sistema pasiboekin alderatuta, sistema aktibo horien eragina errazagoa jasotzen da datu eta frogen bidez. Sistema pasiboek, gainera, ez dute industria sektorerik mugitzen, haizearen eta eguzkiaren baliabideetan oinarritzen direlako. Edozein kasutan, baldintza energetikoek emango diete forma eta estetika etorriko diren eraikuntzei. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Lur ALBIZU ETXETXIPIA**

Zenbakiez eta lehentasunez

3 . 8. 10. 4. 5. 7. 6. 8. 6. 6. 5. 6. 5. 4. 6. 7. 3. 5. 5. 6. 4. 6. 7. 1. Zentzu handirik gabeko segida ematen du, baina urtez urteko hildakoen zenbakiak dira. Datu zehatzak ditugunetik, 2003. urteaz geroztik, alegia, 133 emakume* hil dituzte Euskal Herrian indarkeria matxistaren ondorioz. 'Datuei' beste zenbaki bat gehitu behar zaie: 13. Indarkeria bikarioa deitzen den horren biktimak izan direnak Euskal Herrian, denbora tarte horretan: haurrak.

Zenbakiek, hala ere, ez dute pista handiegirik ematen, hotzegiak dira: ez dute izen-abizenen berri ematen, ez dute testuingurua azaltzen, ez dute indarkeria matxista zer den definitzen, ez dute segida logikorik eskaintzen –edo gorabeherak dituen egonkortasun izugarri baten berri ematen digute–, ez dute ez adinik, ez lurralderik, ez lekurik. Hil dituzten emakume* horiek guztiek bai: testuinguru zehatz batean bizi ziren, indarkeria matxistaren adierazpenik gordinena sufritu zuten –heriotzaraino–, adin zehatz bat zuten, leku zehatz batean bizi ziren. Izen-abizenak zituzten.

Zenbaki batzuk, izen-abizen batzuk, memorian iltzatuta geratu zaizkigu. Izan datagatik, izan hilketari buruz jakin genuenean non geunden gogoratzen dugulako, izan komunikabideetan hartu zuten presentziagatik, izan gure etxetik gertu jazo zirelako. Baina memoriak ez du mesede handirik egiten, askotan: 133+13 horietatik gutxi gogoratzen ditut, egiari zor: noiz, nola, nork, nori. Beharbada ez da inportanteena ere, baina oroimen kolektiboa osatzeko beharra dugula iruditzen zait, ez ahazteko zein den indarkeria matxistaren tamaina, dimentsioa, testuingurua, kausak.

Izan ere, feminismoaren kontrako oldarraldiaz hainbeste hitz egiten den garaiotan, hainbat ideia eta jarrera zabaltzen ari dira azken hamarkadatan izan den mugimendu iraultzaile eta inpugnatzaileenaren kontra. Eta, zer esanik ez, feminismoaren aurkako jarrerak sozialki zabaltzen ari direla aditzera ematen duten hamaika ikerketa eta inkesta ikusten ari gara eta ikusiko ditugu, neutroak balira bezala. Beste hamaika adibide jartzen ahalko genituzke. Zergatik gertatzen da hau? Batzuek diote aurrera egiten ari garelako etorri dela oldarraldia, erreakzio forman. Dena den, memoriari jarraiki, mugimendu feministan, hamarkadaz hamarkada, emakume* askok –baina ez hainbestek– iraunkorki lan egin du, asko edo gutxi izan, egunerokoan. Olatuak ez dira kasualitatez etortzen. Iritsiko dira beste batzuk. Feminismoak ez du atzera bueltarik.

Beharbada ez da inportanteena ere, baina oroimen kolektiboa osatzeko beharra dugula iruditzen zait, ez ahazteko zein den indarkeria matxistaren tamaina, dimentsioa, testuingurua, kausak

Heriotzak ere ez du atzera bueltarik izaten. Horregatik da garrantzitsua emakumeen* aurkako biolentzia egiturazkoari erantzuteko bideak argiak izatea. Eta ardurak banatzea, eta baliabideak izatea. Erakundeetatik hasi, mugimendu sozialetatik pasa eta norbanakoetaraino –baita komunikabideak ere: morboak eta detaileek zertarako balio dute zehazki?–. Erantzukizun desberdinarekin, baina hemen gizonak emakumeak* hiltzen jarraitzen dute, menperatzen gaituen sistema oso baten barruan. Eta lehen mailako arazoa beharko luke agenda guztietan, ez emakumeenean*, ez feministenean. Gaurgaurkoaz, ez dago. •

KOOP57

10 urte bazkideen aurrezkiak bildu eta ekonomia sozial eraldatzailea bultzatzen

Aurrezkiek ez dute mundua aldatzen. Mundua aurrezki horiek finantzatzen dituzten proiektuek aldatzen dute. Konbentzimendu horrekin, hamar urte daramatza Koop57 kooperatibak bazkideen aurrezkiak bildu eta ekonomia sozial eraldatzailea bultzatzen.

Euskal Herriko 84 entitatek eta 338 norbanakok 4 milioi euro aurrezten dituzte zerbitzu kooperatiba honetan. Haiei esker, 5,6 milioi euro eman dituzte guztira 86 mailegutan. Entitate bazkideak ezagunak dira, gure herriko ekonomia sozial eraldatzailea josten ari dira egunero: EHNE Bizkaia, Hiritik At, Talaios Koop, Tapuntu, Astra, Consonni, Olatukoop, Aztiker, Sudergintza, Salhaketa, Bira, Hiru Damatxo, Katakarak, Biziola, Hiruki Larroxa, Kaxilda, EHkom, Izarkom, Biolur, Haizaldeko, Bizi!, Goiener, Oinherri, Erein Da Jan, Laba... Koop57ko bulegoaren horman jarrita daude izen guztiak, denbora lerro baten inguruan, eta nabarmena da azken bost urteetan izandako gorakada. Azken urtean, 1,3 euro eman dituzte mailegutan.

Jone Etxeberria Agirre Euskal Herriko lurralde saileko lehendakaria eta espainiar Estatu mailako egitura osoko lehendakariordea da. Jone Otxoa, Euskal Herriko lurralde saileko idazkari teknikoa. Biek egin digute harrera Donostiako Egia auzoan duten lantokian eta pasioz mintzatu zaizkigu ekonomia egiteko hagitz bertzelako modu honetaz.

JATORRIA, LANGILE BORROKA
Koop57 azaltzeko 1986. urtera joan behar dugu. Krisi garaia zen Katalunian, eta Bruguera

 **EKONOMIA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Irudikatu bazkideen aurrezkiak ekonomia sozial eraldatzaileko proiektuak finantzatzeko erabiltzen dituen kooperatiba bat. Eta, gainera, banku kapitalisten praktiken kontrako modura egitea, ekonomia eta jendarte eraldatzen laguntzeko helburuarekin. Bada, existitzen da, Koop57 du izena eta 10 urte bete ditu Euskal Herrian.

argitaletxea, Mortadelo eta Filemon, Zipi eta Zape eta beste plazaratu zituen, bankuen esku gelditu zen. Ixtea erabaki zuten eta ia 1.000 pertsonak lana galdu zuten. Horietako batzuek langile borrokaren bidea hautatu zuten. Borroka horrek urte batzuk geroago epaiketa irabaztea lortu zuen, eta horri esker kalte-ordain pertsonal batzuk jaso zituzten. Dirua bakoitzak

bere poltsikoan gorde beharrean, funts komun batean sartzea erabaki zuten eta dirua hiru zatitan banatzea: lehenengo zatia Nikaraguako sandinistentzat, bigarrena Andaluzian lurren pribatizazioaren aurka ari ziren sindikatuentzat, eta hirugarrena erresistentzia kutxa bat sortzeko. Azken horren xedea proiektuak sortzea zen eta, hortik, lanpostuak. Pertsona

Jone Etxeberria eta Jone Otxoa, Koop57 kooperatibako lehendakaria eta idazkari teknikoa, hurrenez hurren, Donostiako Egia auzoan duten bulegoan. Hurrengo orrialdean, urteurrenaren harira egindako pilotak.
Jon URBE | FOKU

baten erabakiak ez zituen berri-
riz arriskuan jarriko.

Erresistentzia kutxa horretatik sortu zen 1995. urtean Coop57 Katalunian, zerbitzu kooperatiba gisa. «Ez gara banku bat; autonomia osoa dugu, ez dugu inongo harremanik Espainiako Bankuarekin eta europarrekin. Jartzen dituzten arau eta legediek ez digute zuzenean eragiten, baizik eta kooperatiben araudiaren arabera funtzionatzen dugu. Erabaki guztiak asanbladan hartzen ditugu, guk erabakitzen dugu zer mailegu mota, zeini, nola eta zer interesetan eman», azaldu dute.

LURRALDE SAILAK
Coop57 sortu zenean, Aragoiko pertsona eta entitate batzuk hurbildu ziren Kataluniara haiek ere proiektuak bankueta-



tik aparte finantzatu nahi zizutzelako. Hausnarketa baten ondotik, behetik gorako hazkuntza bat izan behar zuela erabaki zuten. Ez zuen zentzurik katalan bat Aragoira joateak gauzak nola egin behar zituzten erratera; bertako jendeak egin behar zuen. Hala jaio ziren lurralde sailak, eta Euskal Herrian 2015ean sortu zen Koop57. «Horizontalki, deszentralizatu-ta, sarean» aritzen dira.

Lurralde sail bakoitzak bere asanbladak ditu, baita batzorde soziala, tekniko, zuzendaritza eta idazkari tekniko ere. Otxoa da hemengo idazkari tekniko, langile bakarra, eta eguneroko lanean aritzen da. Gainontzekoak boluntarioak dira. Batzorde soziala, tekniko eta zuzendaritza hilabeteetan behin elkartzen dira.

BAZKIDE LAGUNTZAILEAK

Koop57n ez dago bezerorik, zerbitzuak jasotzeko bazkide izan behar baita. Bi motatako bazkideak dituzte: kolaboratzaileak edo laguntzaileak eta zerbitzu bazkideak. Bazkide kolaboratzaileak aurrezkiak Koop57n gordetzen dituzten pertsona edo entitateak dira.

Adibidez, Etxeberrira proiektura batu zenean, duela hamar urte, bazkide kolaboratzailea zen. «Bazkidetzeko gutxieneko ekarpena 300 euro besterik ez da eta 400 euroekin hasi nintzen. Orain diru gehixeago daukat eta aurrezten joaten naiz».

Mota honetako bazkideek ezin dute mailegurik eskatu, xedea proiektuak bultzatzea delako. Baina asanbladetan parte har dezakete eta erabakietan boto bat dute, berdin du zenbat aurrezki dituzten.

Bulego birtual batetik momentu oro sartu edo atera ditzakete aurrezkiak. Urte bukaeran %0,5eko ordainsaria

Gaur da eguna puska diru gehiago dutena, baina bazkide gehiago dituzte eta beharrak esponentzialki handitu dira. Bazkide berriak lortzea dute erronka, maileguak emateko

Ez dituzte interesak bazkideen artean banatzen. Irabaziak proiektua bera indartzeko dira. Horrekin badaezpada poltsak osatzen dituzte. Konfiantza eta errespetua dituzte oinarri

jasotzen dute. Orain arte modu bakarra egon da aurrezteko, baina joan den ekainean bigarren modu bat jarri zuten martxan: bi urtean diru hori ez ateratzeko konpromisoa hartuz gero, %1,5eko ordainsaria jasotzen da. Hala ere, edozein momentutan atera daiteke dirua inongo arazorik gabe eta baja eskatzen duenari ere dirua itzultzen zaio. Ez dago bertzelako gasturik.

Zein da onurarik handiena? «Badakizu diru horrekin ez dela espekulatuko, ez dela armagintzan erabiliko. Justu kontrara: diru horren parte bat ekonomia sozial eraldatzailerako erabiliko da», azpimarratu du Etxeberriak.

ZERBITZU BAZKIDEAK

Zerbitzu bazkideek, aurrezteaz gain, maileguak jaso ditzakete. Entitateak dira, proiektuak, eta ekonomia sozial eraldatzailean oinarrituta egon behar dute.

Aurrezteko, hasieran 1.000 euroko ekarpena egin behar dute. Gero ez dago gastu gehiago.

Koop57.eus webgunean ematen dute bazkidetzeko aukera. Bi bazkidetzat motak egin ditezke. Bazkide laguntzaile izateko nahikoa da galdetegi bat betetzea datu pertsonalekin. Koop57k, trukean, informazio osoa ematen du: zer mailegu

84

entitatek eta 338 norbanakok 4 milioi euro aurrezten dituzte Koop 57n. Haiei esker, 5,6 milioi euro eman ditu guztira kooperatibak Euskal Herrian, 86 mailegutun.

64,5

milioiko aurrezkiak dituzte guztira egitura orokorrean, Coop57n. Maileguetan emanda, bazkideen eskuetan, ia 46 milioi. Hori interesatzen zaie, dutena erabiltzea. 5.602 bazkide eta 1.258 zerbitzu bazkide dira. 2024an, 26,7 milioi euro eman zizkieten maileguetan 366 proiektu berriri eta 407 bazkide berri izan ziren.



eman diren, zer kopurutan, nori, zenbat interes... Zerbitzu bazkideen kasuan, konplexuagoa da bazkidetzat, ez dutela edozein proiektu finantzatzen bermatzeko. Batzorde sozialak ebaluazioa egiten du. Lehenengo galdetegi baten bidez eta gero aurrez aurreko elkarriketa baten bidez. Lurralde saileko zuzendaritzak erraten du azken hitza.

Behin onartuta, asanbladetan parte hartu, aurreztu eta mailegua eska dezakete. Hemengo bazkide gehienek ez dute inoiz mailegurik eskatu. Sarearen parte dira eta badakite behar izatekotan hor dagoela Koop57. Mailegua eskatu dutenean, beti bueltatu dute.

XEDEA, PROIEKTUA

Etxeberriak esplikatu duenez, ematen dituzten maileguen

interesak ez dira altuak. «Gaur egun Europako Banku Zentralak oso merke ematen du dirua eta, hortaz, askotan interes oso baxuetan ematen dituzte maileguak bankuek. Zer da guk eskaintzen duguna? Gure helburua ez da dirua egitea. Aurrezkiak hor daude, eta badakigu mailegu bat ematen dugunean pixkanaka jasotzen joango garela. Kontua da ez dugula hortik dirurik atera nahi, guk nahi duguna da proiektua aurrera ateratzea. Orduan, proiektuak arazorik badu, elkarrekin azter dezakegu arazo hori koiunturala ala estrukturala den».

COVID-19 gaitzaren garaian, proiektu ugari gelditu ziren eta, noski, aunitzek ezin zuten eskatutako mailegua ordaindu. Orduan, denei deitu zieten, nola zihoazen



galdetzeko. Eta hala erran zieten: «Lasai, parte bat aurrera badoa, beste batek utz diezaioke une batean ordaintzeari. Guk zuen proiektuak aurrera segitzea nahi dugu». Proiektuaren arazoa estrukturala izango balitz ere, aztertuko lukete. Eta egunen batean kale egingo balu, abal aunitz eskatu dituztenez, bilatuko lukete modua diru hori nolabait itzultzeko.

Otxoak gaineratu du irabazi-asmorik gabeko kooperatiba direla. «Ez ditugu interesak bazkideen artean banatzen. Irabaziak proiektua bera indartzeko dira. Horrekin badaezpadako poltsak osatzen ditugu. Konfiantzan eta errespetuan oinarritzen gara».

Etxeberria Hitzar energia kooperatibako bazkidea ere bada eta Hitzarren izenean ere etortzen da Koop57ra. «Guretzat garrantzitsua da. Instalazio fotovoltaiko bat egin behar badugu, mailegua eska dezakegu, dirulaguntzak geroago iristen direlako. Ban-

kuek ez digute diru hori aurreratzen».

ABAL MANKOMUNATUAK

Koop57ren ikurretako bat abal mankomunatuak dira. Orrialde bat da, zeinetan entitate batek ezin badu mailegua itzuli diru bat jartzeko konpromisoa azaltzen den. Proiektu batek mailegua eskatzen badu, abal horiek eginen dituzten pertsona edo entitateak bilatu behar ditu. Mugak daude: norbana-koek ezin dute 5.000 euro baino gehiago abalik eman, ezta entitateek 10.000 euro baino gehiagokorik ere. «Hori

Eraldaketa sozial eta ekonomikoaren aldeko zerbitzu kooperatibako kideak, lan saio batean. KOOP57

Ez dute dirurik atera nahi, nahi dutena da proiektua aurrera ateratzea. Orduan, proiektuak arazorik badu, elkarrekin aztertu eta konponbidea bilatzen dute

«Badakizu Koop57n ez dela zure diruarekin espekulatuko, ez dela armagintzan erabiliko. Justu kontrara: diru horren parte bat ekonomia sozial eraldatzailerako erabiliko da»

guretzat oso garrantzitsua da, alde batetik, erakusten digulako arrisku horren atzean badagoela oinarri sozial bat proiektu eta mailegu horretan sinesten duena. Bestalde, egoera zail bat iristen bada, arriskua jende askoren artean banatzen da eta ez da inor kolokan jartzeko», azaldu du Otxoak.

Hala ere, oraindik ez dute abalik martxan jarri beharrik izan, krisi bat gertatzen bada adostasun batera iristen direlako proiektuak jarraitzeko.

AHOZ AHO

Duela hamar urte hasi zirenean, diru-sarrerak majoak izan zituzten, Coop57 orokorrean ere dirua zegoen, eta toki guztietara joaten ziren galdetuz: «Proiekturik baduzu? Dirua behar duzu? Etorri». Gaur da eguna puskaz diru gehiago dutena, baina bazkide gehiago ere badituzte eta beharrak esponentzialki handitu dira. «Diru asko dugu, baina gehiago behar dugu. Horregatik hasi gara komunikazioa lantzen.

Katalunian, 30 urtean ez dute behar izan». Orain arte ahoz aho moldatu dira.

Europar ere antolatuta daude. «Daukagun fama da oso seguroa garela. Mailegua ematea berme moduko bat da. Ez bakarrik egitasmoak porrot egiten badu; bideragarritasun plana pasatu badu, aukerak egon daitezkeelako da. Komisio teknikoak ez dio bakarrik baietz ala ezetz. Esan dezake: ‘Modu honetara ezin da, baina nola egin dezakegu ahal izateko?’. Laguntza dezentekoa da; horregatik, mailegu bakoitzaren atzean lan izugarria dago», agertu du Etxeberriak.

Azken mailegu handia Biziolarena izan da. 700.000 euro eman zizkioten guztira bi mailegutun. Goierrin dagoen ekonomia sozial eraldatzailerako polo bat da, eta fabrika bat erosi behar zuen.

GOIENER

Goienerri emandako mailegua ere garrantzitsua da. 2023an energiaren prezioak izugarri egin zuen goiti egun batetik bertzera, eta diru pila sartu behar zuen kooperatiba horrek energia merkaturatzen jarraitzeko. «Erabakiak oso azkar hartu genituen: 500.000 euro eman genizkion etorkizuna nolakoa izango zen jakin gabe. Ondo atera zen guztia, dirua berreskuratu genuen. Baina momentu larri horretan, ‘hauek ezin dute itxi’, pentsatu genuen. Erabaki politikoak dira, baina zergatik ateratzen dira ondo? Badakigulako egitura indartsuak direla eta bazkideek proiektuan sinesten dutela. Zerbait gertatzen bada, guztiok gaude», azpimarratu du Koop57ko lehen-dakariak.

Bazkideen beharrei erantzunez sortu dituzte mailegu mo-

tak. Adibidez, dirulaguntzak aurreratzeko mailegua aunitz ematen da. Etxebizitza mailegurik ez dute eman hemen, baina fabrika erosteko bai. Kaktakraken kasuan, eraikin osoa erostean ere lur hori ekonomia sozial eraldatzailerara bideratu dute. 400.000 euro eman zizkioten.

Kreditu polizak dira gehien eskatzen direnak. Poltsa bat da zeinetatik dirua beharren arabera sartu eta atera daitekeen.

Mailegu guztiak itzul daitezke adostutakoa baino lehen.

Interesak dira Koop57ren diru iturri bakarra eta asanbladan erabakitzen dira. Iraunkorrrak dira: %3tik %5,25era doaz. Bertzeen interesak aunitz igozten direnean, hauek mantendu egiten dira. «Dirua merke jartzen dutenean, ezin dugu lehiatu interesetan, baina dena ez dago interes horretan. Hemen ez dago gastu gehiagorik. Mugitzeko gaitasuna eta konfiantza eskaintzen dugu. Gauzak ondo doazenean, eta, gaizki doazenean, oraindik gehiago», defendatu du Jo-ne Otxoak.

ITSULAPIKO BAT

Bazkide berriak lortzea dute orain erronka, aurrezkiak behar dituztelako maileguak emateko. «Koop aurrezteko itsulapiko bat bezala ulertu behar da, baina bitartean fakturak ordaintzeko banku bat behar dut. Interesgarria da hila-beteen diru bat gorde daitekeela Koopen automatikoki, eta hala aurrezten joan».

Koop57ko kideei ez zaie interesatzen pertsona edo entitate batek diru aunitz aurrezte; nahiago dute jende eta entitate ugari gutxi aurrezte. Horrela, pertsona batek dirua ateratzea erabakitzen

baldin badu ez da proiektua arriskuan jartzen.

FUNDAZIOA

Fundazio bat ere badute, kooperatibak lagundu ezin dituen proiektuak laguntzeko. Amillubi horren bidez egin zuten. Bertze egitasmo bat ere abiatu zuten Palestinako ekonomia laguntzeko. «Hemen ere oso egun gutxitan diru asko lortu genuen. Koop57 ekonomia sare alternatiboetan dago, mundu mailan ere baditugu harremanak eta halakoetan harreman horiek asko egiten dute».

Sevillan, Gazpacho Gitano jarri zuten martxan. «*Las Tres Mil Viviendas* izango da estatu mailan auzorik pobreena, ijito asko bizi dira bertan. Han izan ginen bisitan. Sukaldea behar zuten jangela sozial bat egiteko. Kanpaina bat egin zen fundazioaren bidez eta sukaldea erostea lortu genuen», kontatu du Etxeberriak.

«Ez gara banku bat eta autonomia osoa dugu. Erabaki guztiak asanbladan hartzen ditugu, guk erabakitzen dugu zer mailegu mota, zeini, nola eta zer interesetan eman»

Koop57n ez dago bezerorik, zerbitzuak jasotzeko bazkide izan behar baita. Bi motatako bazkideak dituzte: kolaboratzaileak edo laguntzaileak eta zerbitzu bazkideak

«Askotan 'fundazio' hitza entzutean atzean ondasun handi bat dagoela iruditzen zaigu. Guk ez daukagu halakorik –argitu du Otxoak–. Fundazioak egiten duena da halako proiektu bat ateratzen denean *crowdfunding*-a egiteko daukagun erreminta zabaltzea eta kanpainak egitea. Adibidez, Palestinarentzat, Daman hango enpresarekin eskuz esku, dirua lortzeko».

Fundazioan dohaintza puntualak eta finkoak daude. Bada jendea fundazioaz fidatzen de-

na eta urtero jartzen duena. Etxeberriak, erraterako, bere diruak ematen duen interesa jartzen du: «Nire diruak ez ditu umetxoak egiten. Finantza mundua ezagutzen baduzu, badakizu umetxoak egiten baditu norbaiten kontura ari dela».

Bankuek herritarron beharrak txanpon bihurtu eta gure dirua erabiltzen dute negozioa egiteko. Logika hori errotik iraultzea posible dela frogatu du 10 urtez Koop57k. Zorionak eta aunitz urtez!



Gasteizko Izaskun Arrue Kulturgunean ospatu zuen Koop57k hamargarren urteurrena, iragan urriaren 25ean.
KOOP57



Josu OZAITA Antropologoa

Gazta maisua

Irribarre goxo batekin zain dut etxeko atarian Andres Etxeberria (Berastegi, 1942). Sukalderaino eraman nau segituan, tertulian hasteko irrikatan balego bezala. Beheko suaren dir-dir gorri-laranjak, kanpoan dagoen giro narrasa goxatzen du. Nire harridurarako prest dut parean, umiltasunetik, erantzunak emateko gogotsu. Artzainak bakartiak irudikatzen ditugu, hitz gutxikoak. Bera ere halakoa omen zen umezaroan: «Gu lotsatiagoak ginen kalekoak baino. Txoriak ere kalean lotsagabekoak izaten dira».

Gaurko sukalde askotan presa nabari da, otordu bakartiak hainbatetan, tuperren mugimenduen patxada falta. Baina Euskal Herriko sukaldeak patxadan berriketan aritzeko txokoak izan dira, transmisiorako habia, ideiak bor-bor garatzeko toki. Desagertzen ari dira bizitza zuten sukalde horiek, horietakoa dugu Andresena, ordea. Sukalde honek hitz egingo balu, makina bat istorio kontatuko lizkiguke.

«Artzaintza pentsatzen dugu zerbait itxi eta apartatua bezala, bakartia... Baina guk hartu-eman asko izan dugu, hartu eta eman: artzaintza eta gaztagintza ikastera etorri direnak, kontrolak eta analisiak egitera etortzen ziren albaitariak eta biologoak, baita gaztandegia ezagutu eta gazta eroastera gerturatzen ziren turistak eta inguruetaoak. Tratu asko izan dugu pertsona desberdinekin; asko. Nire bizitzan mahai hau garrantzitsua izan da, aurretik aipatutako jende askorekin, lanak egin ostean, hemen gosaltzen genuelako. Pertsona guztiekin mahai honetan berriketan, zurekin ai naizen bezala, gauza guztiez. Mahai honen bueltan asko hitz egin dugu, asko ikasi».

Aurpegia ezkutatu eta hitzak gordetzetik, tertulia maitatzera igaro zen Andres, aspaldi. Mahai hartan asko jasoko dudala azkar igarri dut, eman baino gehiago, eta onena, bizkarra eserlekuan erlaxatzen utzi eta entzutea dela erabaki dut.

{ gastronomiaren antropologia }

Ume garaitako ametsak, egin behar-raren beharrak eta gorabeherak. Gai sakonak eta interesgarriak eta, tarteka, barreak. Andresek, umore puntuarekin, hausnarketak eta galdera berriak jartzen ditu mahai gainean.

Obran ikasi zuen 40 egunez, lagun batekin arituta, erremintak maneiatzen ikasteko eta gero ukuiluan txukunketak egiteko. 22 urterekin soldaduskara joan zen, eta itzulitakoan obrak eginez jarraitu zuen etxean, 14 behientzako tokia prestatuz. 200 ardi ere izan zituzten. Valladolidera joan zen nekazaritza ikasketak egitera, 25 urterekin: «*Dirección y gestión de la empresa agraria*». Umorez esaten duenez, «izen handia, luze xamarra». Eskolara kasik joan gabeko berastegiarra, kanpo-

ra ikastera, lanerako adin onenean. Galderak zituen, eta erantzunak aurkitzea zuen gustuko. Garai garrantzitsua bere bizitzan, lau urtez burua asko ireki eta aberastu ziona. Ordura arte ikasketa handiegirik gabea, ase zuen, neurri batean, bere ezagutza beharra. Arrazoi txarrek min egiten zioten, eta topatu zuen antidotoa: galderak egin eta erantzunak bilatzen saiatzea.

ARMUÑO ARTEGIA

Baserri indartsu eta aurreratua zuen garaietan, etxeko gorabeherak tarteko, ia zerotik hasi behar izan zuen 36 urterekin, Rosa Catala emaztearekin batera. Obran hasi zen lanean, hargintzan, zurgintzan... denetik. Denetik, dena. Bizitzako borroka horretan, orain gauden Armuño etxea egin zuen anaia batekin, beren eskuekin, 1978an hasita. «Armuño», «harri muño». Buelta guztian soroak dituen bizkarrean, harriak soilik daudelako. Hala ere, bere umetako ametsari eutsi nahirik, ardiak gehituz joan zen, baserri zahar bat alokatuta. Obran lan egiten zuen, dirua irabazteko, baina bere ogibidea argi zuen Andresek: artzaintza. «Nire ofizioa, azkenean, horixe zen, gaztetako ilusioa. Ilusio horri ez nion utzi. Eta amets hori bizitzen, sozio emaztea izan nuen. Soziorik onena emaztea da enpresa batean». Halaxe, 30 urtez artzain izan zen, Rosarekin batera.

Gustura nago berriketan. «Andres, lana izugarri egindakoa zara zu», esan diot. Etxea eginda, baserri alokatu batean ardiak, frankismo ostean herriko lehen alkatea, eta artzain txiki eta artisauen iraultza haren parte 80ko hamarkadan: hobetze genetiko-lanketak, intseminazio zentroak, Artzai-gazta elkartearen sorrera, Idiazabal jatorri izena... Elkarrekin, kooperatibak eta ikastaroak. Andresek bazekien jakintzatik zetorrela aldaketa, eta lehen lerro horretan aritu zen ikasten eta hausnarrean. Erantzunen, zergatien jakin-minez.

«Askotan entzun dut esaldi bat: 'Gure zaharrek hau honela egiten zuten eta ez hituen tontoak'. Ados. Baina ez ditugu bereizten gauzak: tontoak ezin zitez-



Andres Etxeberriak bizitza eman dio gaztagintzari. Josu OZAITA



Berastegiko artzainak lan handia egin du ondorengoei bere jakintza transmititzen. Josu OZAITA

keen izan, hain tontok balira, listorik ez zelako etorriko. Baina zer edo zer falta zitzairen ere, denera ez ziren iritsi... eta tartea hor ikusten dut. Esaldi potolo horiei, oso konbentzituta esanda, ez dago kontra egiterik, baino tartea ikusten dut nik. Garaiak asko aldatu dira eta us-teekin ez dago inora joaterik. Dena ere ez zekiten zaharrek».

Alokaturiko baserrian aritzen zenean, 12, 13, 14, 15 ordu aritzen zen lanean; egunero, jai eta larunbat. Hantxe asmatu zuen ardiak jezteko fosa egitea, erosoago lan egiteko, gerritako mina leuntzeko, burua erabilita, gorputzari egur gutxiago emateko. Denborarekin, orde, etxe ondoan eraikin berria egin zuten, artegi, gaztandegi eta dendarekin. «Lasaitu ederra hartu genuen. Hորra lanera joatea, ofizinara lanera joatea bezala zen».

Leihora bertaratzen gara orduan, etxetik ikusteko. Irribarre txikia ateratzen zaio; begiak umeldu. Ez da makala Rosak eta Andresek elkarrekin egin zutena. Lan asko. Eskuak ibilita, baina baita burua ere. Goizeko zazpitan lanean hasten ziren, Andresi gustatzen zaion bezala, ordenatuta. Bat jana jartzen ardiei, bestea lanerako ontziak urez akkuratzen. Ardiak jetzi, ardiak belazez mugitu, gaztak egin, bazkaria prestatu... elkar ondo ulertzen zuten,

elkarlanean aise aritzen ziren. Gazta gehienak Andresek egin zituen, saldu gehiena Rosak, orde. Egunero lan eta lan, iluntze arte. Lo, zortzi orduz. Gazta garaia amaituta, eguraldi txarra zenean, egun pasa batzuk, oinarritzko lan batzuk egin ostean. Eta, urtero, saiatzen ziren lanerako ordezkaria hartu eta Rosaren jaioterrira joaten zortzi eguneko oporretara: Kataluniara. Lanean gogor, baina antolatuta. «Nik beti pentsatu izan nuen nekazaritza edo baserritik bizi zitekeela. Libertatea duzu, hala deitzea baldin badago, baina ez duzu nagusi edo enkargatua gainean. Asebetetzen zaitu, emaitzak ikustean, gazta eroatera jendea etortzean. Momentu gogorak ere izaten ziren eta nire buruari galdetu: bizitzeko hau dena egin behar al da? Lokatzeko hau dena egin behar al da? Lokatzeko

«Nik beti pentsatu izan nuen nekazaritza edo baserritik bizi zitekeela. Libertatea duzu, hala deitzea baldin badago. Asebetetzen zaitu gazta eroatera jendea etortzean»

«Gure nekazari, abeltzain edo artzaintza mundu hau matxuratuta dago, noraezean. Politika mailan edo bilatu beharko litzaioke aterabidea, ez dakit inork asmo txikienik ere ba ote duen»

tan aztarrika ibiltzean... Baina gero dutxa bat eta berriro indarrak hartuta!».

Nekez nekatzen zela dio. Unibertsitatera joatea garrantzitsua omen da, hizkuntzak ikasi, baina bizitzako praktikan ikasitakoa ere bai, hausnartu du. «Andres, imajinatu, gazte bat etortzen zaizula, arditako izugarritzko afizioa duena, eta zalantzan dagoena lanpostu finkoa utzi eta artzain, gazta eginez, bizi-modua aurrera ateratzeko. Kontseilua eskatuko bali-zu, zer erantzungo zenioke?».

«Nire kalkuluen arabera, 300 ardirekin bikote bat bizi daiteke artzaintzatik, gaztak eginez eta salduz. Beste gauza bat da peligr osoa, 500, 600, 1.000 ardi... Nik horri gosea esaten diot, dena jateko, dena jan egin behar. Eta bizitza ez da hori niretzako».

«Baina gauzak ez daude errazak».

«Zera falta da: barkua itsasoan matxuratzen bada, noraezen nola hasten da? Gure nekazari mundua edo abeltzain mundu edo artzaintza mundu hau, matxuratuta dagoela esan daiteke, eta noraezean dabil. Politika mailan edo bilatu beharko litzaioke aterabidea, ez dakit inork asmorik edo pentsamendu txikienik ote daukan irtenbidea bilatzeko».

ANDRESEN GAZTA ESKOLA

Andres ezaguna da herrian, bere lanak edo eskuza-baltasunak oihartzun luzea izan du. Berastegiko gazta egileen aita dela aipatu didate, artzain jakintsu bezala deskribatu, eta bere jakintza banatu duela, bueltan ezer jasotzeko interesik gabe, eta honela sortu da Andresen Eskola. Ikastaroak eman izan ditu gazta egiten ikasteko, eta edozein joan zaionean ere, segituan eskaini zaio praktika gazta egiten erakusteko. Gaur egun, Berastegin gazta egiten duten askok, beragandik ikasita egiten dute, baita herritik kanpoko hainbatek ere. Esaten dutenez, bere esku-zabaltasun hori gabe ez litzateke hainbeste gazta egingo herrian. Ez da ohikoa, Euskal Herrian, halako eskuzabaltasunarekin etxeko ateak ireki eta dakizun guztia erakustea.

Andresen Eskolak ondarea utzi dio jende askori, gazta egitearen jakintza eta kultura. Ederra da berak egindako gazta jatea, baina izugarria eta sekulakoa, gazta hori bera, bere konpainian jatea, sagardo botila batekin. Andresen artzaintzan, mundu ikuspegi bat dago, balio gizatiar batzuk eta filosofia, filosofia asko. Eskulanarekin gozatzen du, zurgintzarekin, gaztagintzarekin, baina baita tertulierekin ere.

«Andres, beste egun batean ere etorriko naiz, baina, nolako animalia da ardia?».

«Animalia tontorik ez dago. Pertsonetan, aldiz, mordoa bai [barreak]. Haiek tontoak direla uste badugu, esan nahi du gu ez garela oso listoak!».

{ osasun lehioa }

Ez naiz inoiz sindikatu korporatiboen defendatzaile izan; hoguei urtez klaseko sindikatu bateko kide izan naiz. Etxean ikasitako Kropotkinen elkarrekiko laguntzaren hondarra izango da, baina nire iritziz osasun sistema bezalako ondasun komunitario bat ezin da “ondo” defendatu hura osatzen dugunon interes partikular eta insolidarioetatik soilik egiten bada.

Aitzitik, oraingo honetan aitortu beharra daukat harrituta nagoela, babesgabe sentitzen naizela, umezurtz. Medikuen aldarrien gainean entzuten ditudan hainbeste errepikatutako argudio ankilosatuak («klasista batzuk zarete, elitistak...»), errealitate paralelo bitan murgiltzen ez ari ote garen pentsarazten didatelako. Ezin ulertu bestela gure aldarrikapen legitimoak zapuzteko dagoen intentzionalitatea: lankide batzuegan, sindikatu batzuegan, beren buruak ezker ideologiakotzat dituzten zen-



Itxaso BENGOTXEA MARTINEZ

Medikuntzan doktorea. Zainketa aringarrietako eta etxeko ospitalizazioko medikua

Medikuok osasun sistemarekin dugun haustura emozionala denon kalterako da



Medikuen protesta bat, greba deialdiaren testinguruan. Monika DEL VALLE | FOKU

bait alderdi edo komunikabiderengan... Berkeleyren errealitatearen teoria egia izango da eta gauzak ez dira diren bezalakoak, norberak “ikusten” dituen bezalakoak baizik. Badirudi medikuok ez daukagula kexatzeko eskubiderik; “langile klasea” eta “medikuntza” kontraesana dira antza. Edo okerrago, protesta egin nahi badugu, gu ere langile klasea garela frogatu behar dugu lehenengo. Akabo!

Medikuok osasun sistema barruan derrigorrezko ordu estrak (guardiak) egitera behartuta gaude, ez ordea beste estamentuak. Espainiako osasun sistemaren ezkutuko bizkarrezurra dira ordu estrak: etengabeko laguntza jarduerari eusteko mekanismoa, giza txandak antolatu gabe eta benetako ahaleginaren arabera soldatak ordaindu gabe. Hori da gardien sistema. Gurean mediku batek 24 ordu jarraian lan egitea normalizatu egin da, ospitaleko beste lankideek baino 800 ordu gehiago lan egitea urtean. Ez salbuespen gisa, ez orain medikurik ez dagoelako, ez unean uneko larrialdi gisara, baizik eta egiturazko funtzio gisa. Sistemaren jasangarritasuna aburu: guardia orduak lanorduak baino merkeagoak direlako. Izan ere, arlo ekonomikoan hasten da perbertsioa: erantzikizunaren, ikasitako urteen eta

ditugun arduren pareko soldata lortu nahi izanez gero, guardiatan eta pizgarrietan lortzen den dirua izan behar nahitaez. Medikuntzan, egonkortasun ekonomikoa zuzenean lotu zaio fisiko ki agortzeari. Lan arrunta ez da ondo ordaintzen. Soldata ez dago nominan: nekean dago, guardiatako orduetan dago...

Bestetik, nominan bakarrik existitzen diren orduak dira guardiakoak: ez dute erretirorako balio, ez dute urteko jardunaldirako zenbatzen, baina lana eta familia bateratzea ezinezko egiten dute eta nire erresistentziaren motxila goraino betetzen doaz.

Bateren batek pentsa dezake: jarri ditzagun medikuak ere txandaka lanean. Ez luke horrek planteamendu utopikoa izan behar, baina hala dirudi, ezinbestean medikuon plantilla hiru-koiztera behartuko lukeelako. Badakit langile publikoak oro har errekurtsu urrien inguruan kexatzekoak garela edo horrela ikusten gaituela gizarteak; ezin besteen egoeren inguruan hitz egin, baina nire arloan, medikuntzan, medikurik ez dagoen argudiopean azken hamabost urteetan jasandako eskubide urraketa ez dut inguruko beste osasun langileetan ikusi. Ez dago oportetarako ordezkorik, aitaren ospitaleratzea edota lizentziak lankideak har-

tzen dituzte bere gain, eta azkenean lankideei karga lausotzeko asmoz eskubideak galduz goaz apurka-apurka, isilpean odolustutzen.

Eta zergatik ez dugu inoiz ezer esan medikuok? Arazoaren funtsa barrutik ulertzeko gure errealitatearekin enpatia ariketa soila baino ez da egin behar: medikuoi hamarkada askotan zehar erakutsi digutelako nekeaz hitz egitea ahulezia morala dela, «ezin dut gehiago» esatea porrot egitea dela, guardia baten ondoren negar egiteak agian lan hau egiteko balio ez dudala aitortzen duela. Nekea bakarrik eta isilik eramaten ikasi dugu. Erresistentzia estoikoaren kulturapean hezi gaituzte unibertsitatetik erresidentziara, eta gero lan munduan ere, urte luzez erresilientziaren mantra errepikatuz, bokazioarenarekin batera. Barrutik hausten ginen bitartean isiltasunean protestarik egin gabe, munduaren aurrean ustezko pribilegiatuak ginela koan egin dugu aurrera. Lanbidearen feminizazioak lehen disimulatzen zen zerbait agerian utzi du gainera: gehiago jasateko eta gehiago isiltzeko heziak izan direnen gainean uzten du bere pisua sistemak orain. Medikuen isilik egotearen kulturari emakumearen zaintza-erresistentzia kultura gehitu zaiolako: lanbide feminizatu prekarizatu da medikuona.

SISTEMAREN BERREGITURAKETA BAT

Izaera korporatiboko sindikatuak interese alderdikoak defendatzen jarraitzen duten bitartean (sindikatu medikoak nahita nahastu ditu lan erreibindikazio legitimoak eta kudeaketa publiko-pribatuko eredu jakin batzuen babesa), klaseko sindikatuak ekidistantzia eroso aukeratzen dute. Euren jarrera ez dator bat zuhurtziarekin, baizik eta lotsarekin, errealitate deseroso bat onartzeko zailtasunarekin: medikuen kolektiboa, gaur egun, alde askotan, prekarizatutako taldea dela. Delibesen “Los santos inocentes” obrari dagokion ikuspegi bati lotzen zaion irudi anakroniko, ia kostunbrista batean ainguratuta, badirudi medikuak defendatzea sozial-



Laudion 2024an egindako protesta, erietxea medikurik gabe utzi eta gaixo bat hil zela salatzeko. Jaizki FONTANEDA | FOKU

ki sumingarria eta probokatzaileria dela klase sindikatuentzat.

Funtsean arazoa ez da estatutu propio bat izan edo ez (gure aldarrikapen nagusiak estatutu amankomun horretan sartzerik bazegoelako), arazoa ez da Madrilen bakarrik kokatzen, erkidegoek ere ausartak izan behar lukete eta gai honetan aurrerapauso bat eman eskumena izan badutelako: estatutu markoak gutxieneko arauak jartzen ditu mahai gainean, horiek hobetzea erkidegoen esku dago. Ez inor engainatu, arazoa da medikuak ondo tratatzea eta sistema mantentzea bere horretan oximoron bat bihurtu dela. Guardiak kenduz gero edo lanordu bezala ikusiz gero, eraikitako karta-gaz-

Gurean mediku batek 24 ordu jarraian lan egitea normalizatu egin da, ospitaleko beste lankideek baino 800 ordu gehiago lan egitea urtean. Ez salbuespen gisa, egiturazko funtzio gisa baizik

Medikuoi hamarkada askotan zehar erakutsi digute nekeaz hitz egitea ahulezia morala dela, «ezin dut gehiago» esatea porrot egitea dela. Nekea bakarrik eta isilik eramaten ikasi dugu

telua jausiko litzatekeelako. Aldarrikapenak onartzeko sistemaren berregituraketa eta birplanteamendu sakona egin beharko litzateke, eta berandu barik.

Borroka honetan, sistemak medikuen arima eta konpromisoa galtzen baditu, garaipenak ez du ezertarako balioko. Medikuoek gure lanaren duintasun eta erantzukizun legitimoa defendatzen dugu. Izan ere, gaur egun, hemen eta orain, beste edozein langile publikori baino esfortzu handiagoa eskatzen zaigu, sistemaren jasangarritasuna mantentzeko guardia ordu horiek diruz jaso bai, baina gure denbora dohaintzan emanez.

Medikuen greba ez da soldata-aldarrikapen hutsala. Ez da ustezko pribilegioen aldarrikapena. Haustura-puntu baten deskribapena da. Medikuoek osasun sistemarekin dugun haustura emozionala gertatzen ari da eta horrek denontzako kalteak ekarriko ditu, ez mehatxu bezala, errealitate bezala baizik... Gure lanarekiko desafekzio emozional horrek gero eta portaera disfuntzionalagoak ekarriko ditu, artatzearen kalitatean zuzenean eragingo duena.

Lanaldi amaigabeen, kontratu ezegonkorren eta autonomiaren galera progresiboaren mende dauden profesionalak defendatzean, paradoxikoki, mesfidantza handiagoa da enpatia baino. Hala ere, argi eta garbi gogoraraztea komeni da: medikuok ez gara patronala, eta are gutxiago osasun sistemaren barruan boterea dugunok. Funtsezko langileak gara, oinarritzko zutabeak sisteman.



Naia TOLOSA eta Klara SMITH
Psikologoa eta EHUko irakasle eta ikertzailea



GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.eus

Espetxea egokia al da haur baten atxikimendua garatzeko?

Haurraren eskubide zein ongizatean maiz pentsatzen den arren, egoera arrotz bat bizi duen talde sozial bat alde batera utzi izan

da: amarekin espetxean bizi diren haurrak. Haiena ez den kondena bat betetzen ari diren umeak dira horiek. Izan ere, presondegien barruan dauden amen moduluak haurren ongizateari begira dinamika ezberdina ezartzen saiatzen badira ere, haien egiturak, tenperaturak, elikadurak eta beste hainbat aldagaik argi erakusten dute ez diotela “Haurraren Interes Gorena” deritzonari jarraitzen, haurren garapen kognitibo zein emozionalak ondorio kaltegarriak jasaten baititu. Halaber, haurren garapen orokorrerako ez ezik, espetxeko testuingurua euren atxikimenduaren garapen ziurrerako ere testuinguru arazotsua da.

Kartzelako testuinguruaren barruan atxikimenduaren garapen ziurra oztopatzen duten faktore nagusienak amaren ongizate psikologikoa eta hiru urte ondoren gertatzen den banaketa dira. Lehenengoari dagokionez, kontuan izanik atxikimendu-irudiaren ongizate psikologikoa erabakigarria dela haurrari eskaintzen zaion zaintza sentiberan eta, beraz, haurrak garatzen duen atxikimendu-harremanaren kalitatean, negatiboki balioesten da haurrak espetxean bizitzea, amen moduluetakoa emakume ugarik abusuz zein burunahasmenduz osaturiko historia konplexua baitute. Gainera, gizartean dauden kartzelari buruzko estigmak emakume horiei emakume nahiz ama gisa huts egin dutela adierazten die, negatiboki eraginez haurraren atxikimendu ziurrean.

Bigarren faktoreari dagokionez, Estatu espainolean haurrak hiru urte betetzen dituenean espetxetik irten behar da beste zaintzaile batengana bidera-

tuz. Praktika hori haurra babesteko argudiopean justifikatzen den arren, amaren eta haurraren arteko banaketak atxikimenduaren harremana kalte-tzen du, baita haurraren nahiz amaren buru-osasuna ere.

Bi aldagai horiek, ordea, kontraesan korrak dira: alde batetik, haurraren eta amaren artean lotura emozional bat garatu ondoren elkarrengandik banantzeak haurraren atxikimendu ziurra oztopatzen du, baina, beste aldetik, haurra espetxean amarekin batera geratzek ere bere ongizate osoa mehatxatzen du, bai amak baliabide material, fisiko zein psikologikorik ez duelako, bai espetxea bera ez dagoelako haur batentzako diseinaturik. Hala, kontraesan horrek bi eztabaidagai dakartza: batetik, banaketaren problematikarekin erlazionaturik, haurraren egonaldia denbora zehazten duen legearen unibertsaltasunik eza, eta, bestetik, amaren ongizatearen problematikarekin erlazionaturik, Kanpo Unitate zein esku-hartze programen baliabide urria.

Hortaz, artikulua honek azpimarratu nahi du kartzelan jaio nahiz hezi diren hurrek haien atxikimenduaren garapena ziurra izan dadin zenbait arrisku-faktore jasaten dituztela, baina, hortik haratago, aldarrikatu nahi du ere espetxeetako politikek preso diren emakumeen nahiz haien haurren behar zein eskubideak ase behar dituztela. Batetik, banaketa hiru urterekin gertatu behar dela zehazten duen legea zalantzan jartzen da historikoki nahiz geografikoki iraunkortasunik ez duelako, eta, bestetik, amari eta amatasun prozesuan laguntza eskaintzeko baliabide errealik jartzen ez dela salatu nahi da, esku-hartze programa zein Kanpo Unitate gehiago sortzearen urgentzia aldarrikatuz. Izan ere, baliabideak dituen espetxe bat gune ziur bat izan daiteke haurrarentzat, eta amari bere amatasunaren prozesuan sostengua zein bitartekoak eskaintzen bazaizkio, hurrek atxikimendu ziurra gara dezakete. •



Arduradun politikoak 2022an Martuteneko kartzelan, amen moduluak aurkezten. Idoia ZABALETA | FOKU

{ koadernoak } Mijo LIZARZABURU

Sasi-marxisten noraiez liberala

Anna Freudek (1936) proiektzioaren mekanismo psikologikoa honela deskribatu zuen: pertsona batek bere pentsamendu, emozio edo ezaugarri propioak beste bati egotea, bereak direla onartzea zaila zaionean. Otsailaren 19an Itaiako kideek “Berria”-n egindako elkarrizketa batean «plan-teamendu transfeminista batzuen noraiea» adierazi zuten, ez zait otutzen proiektzio mekanismoaren adibide hoberik. Itaiako kideentzat gure noraiezaren arrazoiak hurrengoak dira: Mugimendu Sozialista erreakzio antifeminista gisa ikusten dugula, indarkeria matxistarekin bukatzeko gizon eta emakume klaseak desagerraraztea bezalako nabarmenkeriak proposatzen ditugula (TERFak zuekin ados) eta zapalkuntze-kin amaitzeko ikuspegi iraultzailea alboratu dugula. Hurrengo lerroetan azalduko dut zein oker dauden Itaiako kideak eta nola desitxuratzen duten transfeminismo iraultzailearen edukia.

Erreakzionario antifeministak zaretela diogu mugimendu feministarekin aliatu beharrean kontramani-festazioak antolatzen dituzuelako; mugimendu transfeministari zuen kontrolpeko gartzetxeen erabilera ukatu diozuelako; militante transfeministak kanporatu dituzuelako gartzetxeetatik, unibertsitateko ikasle espazioetatik eta auzo okupatuetatik (polizia agertzean koldartuta ihes egiten ez duzuenen, hori ere gertatu da eta). “Patriarkatu” eta “transfeminismo” hitzei betoa jartzen diezuelako beste eragileekin egiten dituzuen komunikatuetan. Zer gertatu zen Leioan? “Irakasle transfobo” terminoaren aurka beharrean, zuek “irakasle erreakzionario” terminoaren alde borrokatu zenuten erasoaren jatorria desitxuratuz; zorionez, Mugimendu Sozialistatik kanpo antolatzen den ikasle mugimenduak lortu zuen transfobokeria hori aldaraztea. Zuen militante matxistoei onartzen diezuelako sare sozialetatik identitate ez bitarre barre egitea eta ondoren

militanteak mehatxatzea. Protokolo feministei betoa jartzen diezuelako gero homofobia salaketak heltzean ez kontabilizatzeko...

Eta hori ez da guztia; tarterik ez dudalako azaldu gabe geratzen diren beste asko ere badaude. Ekintza horiek non, nork eta nola gauzatu ziren dakigu (argazki eta guzti!), baina zuek “Berria”-n izan zenutena baino elegantzia politiko gehiago dugu, eta ez ditut izenak hemen publikatuko. Dena den, hartu hau aholku gisa: utzi guri buruzko gezurrak esateari, eta guk ez ditugu zuetaz dakizkigun egiak argitaratuko.

Hau azalduta, gizon eta emakumeak desagerraraztearen nabarmenkeria eta ikuspegi iraultzailea alboratu izanaren akusazioa jorratuko dut. Aitortu behar dut existitzen dela noraiezean dagoen mugimendu LGTBIAQ+-aren sektore bat, sektore liberala. Horiek proposatzen dutena da sistema heterosexuala erreformatzea. Horien helburua da LGTBIAQ+ fobia eta gure kolektiboarekiko biolentzia eta diskriminazioa bukatzea errora joan gabe, gizon eta emakume klaseekin bukatu gabe. LGTBIAQ+-en eskubideez hitz egiten dute, errespetuaz eta sexu orientazioak modu askean garatzeaz. Baina hemen dator parte barregarria: ezetz asmatu nork erreproduzitzen duen diskurtso liberal hori urtero ekainaren 28an? Itai antolakunde sasi-marxistak! Patriarkatuaren irakurketa materialistik eriteko gaitasunik ez duenak.

LGBTBIAQ+ mugimendu liberalaren beste aldean gaudugu, gure proposamena ez da heteropatriarkatuaren eta hark sortutako gizon eta emakume klaseen erreforma, baizik eta abolizioa, eta hori ez da nabarmenkeria, benetako proposamen iraultzaile bat planteatzea baizik.

Zuek ulertzeko, helburua ez da sistema transfeministaren barruan bakoitzak askatasunez aukeratzea ea langile edo burges izan nahi duen, baizik eta bi klaseen abolizioa eta beste mundu antolaketa bat. Guk ez dugulako gure identitate indibiduala askatasunez aukeratu nahi sistema sozialista baten barruan gizon eta emakumeekin batera. Guk gizon eta emakume gabeko sistema transfeminista, dekolonial, antiespezista eta sozialista nahi dugu. Marxismoa eta transfeminismoa ez direlako antagonikoak, antifeminismoa eta “emakume langileen” benetako askapena ordea bai. Utzi zuen noraiez liberala albo batera eta batu transfeminismo materialista iraultzailera! •

«Proposamena ez da heteropatriarkatuak sortutako gizon eta emakume klaseen erreforma, baizik eta abolizioa»

«Kezkagarria da talde politiko batzuek nola hartzen dituzten kutsu populistak boto emaileak lortzeko»

Granadako Unibertsitateko irakaslea da Alina Danet, baita Politika Zientzietako eta Soziologiako Fakultateko Ikasleen, Partaide-tzako eta Gizarteekiko Harremanetako dekanordea ere. Osasunaren eta osasun administrazioen antolaketarekin lotutako askotariko gaiak ikertu ditu, eta, azken urteetan, gazteen polarizazio politikoa eta muturreko eskuinaren gorakada aztertu ditu. Zer dio ikerketa zientifikoak eskuin muturraren gorakadaren atzean dagoen diskurtsoaz? Zertaz elikatzen dira mezu horiek? Nola borrokatzen dira? Gai horien inguruan hitz egin du Danetek GAUR8rekin.

Datu kualitatiboak aztertzeke erduei buruzko ikastaroa eskaini duzu EHUn. Zertan datza eredia eta zer informazio ematen du?

Gizarte Zientzietako Ikerketa Eredu eta Arloetako Masterrak, EHUko Estibaliz de Miguel irakasleak koordinatzen duena, prestakuntza eskaintzen du gizarte ikerketako metodologietan, eta sakontze eremuetako bat analisi kualitatiboa da, non askotariko irakasleek parte hartzen duten. Nire ekarpenak barne hartzen du hainbat azterketa-metodo laburbiltzen dituen saio praktikoa bat, eta hori interesa duten pertsona guztientzat irekita dago. Bigarren saioak, berriz, diskurtsoaren analisiaren elementuetan sakontzen du. Paradigma horri esker, hizkuntzaren bidez adierazten diren menderatze, diskriminazio, botere eta kontrol harremanak azter daitezke,

historiarekiko eta ideologiarekiko elkarrekintzan.

Gizarte zientzietan, azterketa kualitatiboak hainbat ikuspegi metodologiko biltzen ditu, gizartearen diskurtsoetan, iritzietan, esperientzia pertsonaletan –banakakoak edo taldekoak, agerikoak edo latenteak– sakontzea bilatzen dutenak, betiere kontuan hartuta maila soziala errealitatearen esparru kultural, ekonomikoa edo politikoekin lotuta dagoela, bere adierazpenik ikusgarrienean, baina baita maila sinbolikoan ere. Alde horretatik, diskurtsoak aztertzeak esanahia sortzeko praktikak aztertzea eskatzen du, kontuan hartuta ezagutza nola eraikitzen den, nola agertzen eta irudikatzen den. Analisi tresna horiek guztiek potentzial ikaragarria dute gizarte errealitatea aztertzeke, jarrera hartze ideologikoak ikusarazteko aukera ematen baitute. Posizionamendu ideologiko horiek, batzuetan, ezkutuan edo oharkabean mantentzen dira, baina diskurtso publikoen eraketan eragiten dute.

Eskuin muturraren gorakadari buruz, zer diote datuen analisi kualitatiboek?

Eskuragarri dauden datu kualitatiboak zabalak eta askotarikoak dira, eta horiek laburbiltzeko edozein saiakera azkar erredukzionista izango litzateke. Baina, agian, erabilgarria izan daiteke bereizketa egitea eskuin erradikal populistako alderdiek boto emaileak erakartzeko erabiltzen dituzten diskurtso-estrategiak ulertzea bilatzen duten azterlanen artean. Bigarren arretagune bat hautesleek alderdi horiek ba-

besteko duten motibazioa litzateke. Azterketaren lehen helburuak kanpaina populistak deskribatzen ditu, batez ere sare sozialetan hedatuta daudenak, *targeting* [mezuak kontsumitzaile talde zehatzetara bideratzeko marketin estrategia bat] estrategia oso eraginkorrekin. Probokazio eta negatibotasun diskurtsoetan oinarrituta, erakunde sozialekiko eta ustezko talde «etsaiekiko» etengabeko akusazioekin, arbuio diskurtsoekin, gorrotozkoak ez direnean egiten dute; mezuen horien itua migratzaileak, mugimendu feminista edota mugimendu ekologista izan ohi dira.

Bestalde, eskuin erradikalari botoa ematera bultzatzen duten arrazoiak, politikarekiko egungo desengainuan sartzen dira; gainera, estremismoaren eta bazterketa diskurtsoen hazkuntza idealak dira horretarako. Zenbait biztanleria talderen artean balioekiko eta erakunde demokratikoekiko konfiantza galtzeak ere diskurtso horiek koipetu eta indartzen ditu.

Diskurtso populistak aztertu dituzu, aldatuz joan dira? Unean-unean gertatzen denari egokitzen zaizkio?

Eskuin erradikal populistaren diskurtsoak areagotu eta erradikalizatu egin dira, tonuz igo, inolako lotsarik gabe, harritu ere egiten ez gaituen punturaino. Hala ere, kezkagarria da beste alderdi eta talde politiko batzuek nola hartzen dituzten kutsu populistak, boto emaileak lortzeko. Joko arauak aldatzen ari dira komunikazio politikoan, komunikabideei ere eraginez. Osagai populistez betetzen ari dira interpretazio

ALINA DANET

ESKUIN MUTURRAREN GORAKADAN ADITUA

Eskuin muturraren diskurtsoak areagotu eta erradikalizatzen ari direla dio Alina Danet ikertzaileak. Beste kezka bat ere aipatu du: kutsu populistak beste espazio politiko batzuetara heltzen ari dira.



Argazkiak: Aritz LOIOLA | FOKU

eta irudikapen estandarrak. Horrek eskuin erradikalaren eragina areagotu lezake esparru mediatikoan eta politikoan, eta komunikabideen potentzial kritikoa murriztu.

Azkenaldian, gure pantailetan egunero ikusten ditugu zuzenean giza eskubideen urraketak: palestinarren genozidioa begien aurrean ikusi dugu, Ameriketako Estatu Batuetan migratzaileak nonahi nola atxilotzen dituzten ikusi ahal izan dugu... Egoerone aurrean, nola egokitzen ditu diskurtsoak eskuin muturrak?

Muturreko diskurtsoak erraz integratu ohi dira; egoera soziopolitikoak aprobetxatu ohi ditu eskuin muturrak jarrera markatzeko, gertakariak hutsaltzeko eta desitxuratzeko, bere aldeko narratibak fikzio-

IBILBIDEA

Osasun publikoko eta Epidemiologiako CIBERESP ikerguneko ikertzailea izan da Alina Danet Osasun Publikoaren Andaluziako Eskolan. Generoaren eta osasunaren esparruan aditua da.



natzeko. Batzuetan zuzenean egiten du, bere posizionamendua agerian utziz, beste batzuetan ezer adierazi gabe, isiluneekin.

Mezu antifeministak, bikote heterosexualaren eredu tradizionala goraipatu eta emakumeak etxekoandre rolean kokatzen duten narratibak eta beste, eskuin muturraren posizioak indartzen dituen aldamio ideologikoaren parte dira? Emakume izateko erreferentzia bat eraikitzen ari dira borroka feministari aurre egiteko?

Alderantzikatu egingo nuke harremana: eskuin muturrak iragana aipatzen du, emakumeak etxeko eremura baztertzuten dituzten rol tradizionalak berreskuratzen ditu, eta ustezko esparru protekzionista batetik egiten du, emakumeen

egoera sozioekonomikoa erraztu nahi duen eta ongizatea bilatzen duen ustezko esparru batetik. Bikote tradizionalaren balioak goratzen ditu, eta dituen ustezko onura sozial, demografiko edo kulturalak proiektatu.

Zer dago batez ere gizon gazteen artean gertatzen den eskuin muturreko diskurtsoarekiko loturaren atzean? Beldurra aipatu duzu. Bada, zeren beldur dira belaunaldi berriak?

Gizon gazteen gutxiengo bat eskuinean oso erradikalizaturik dago. Baliteke mehatxatuta sentitzen diren eta, gainera, pribilegioak izatera oso ohituta egon diren gizon batzuen erantzuna izatea, beldurra, amorrua eta gorrotoa islatzen duen erantzuna. CISen datuen arabera, Espainiako gizonen

%44k uste dute berdintasun politikak urrunegi joan direla eta orain gizonak eurak direla diskriminatuta daudenak. Ondoez hori %50era igotzen da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean. Kasu horretan, emakumeek eta feminismoak aurrera egitearen aurrean eskubideak galtzeko beldurra dago. Horri gehitu behar zaio, halaber, diskurtso erradikalen iragazkortasun erraza; gazte populazioaren zati bat oso malgua da eta emozio handiko tonuetan eraikitako ideiak azkar eta kritikotasun urriarekin xurgatzen ditu.

Gazte batzuen prestakuntza eskasaren eta heldutasun politikoaren eta adinaren efusibitatearen arteko konbinazioak, urrakortasun ideologikoaren esparru horretan kokatzen ditu. Bigarren azalpen batek belaunaldien arteko konparazioare-

kin du zerikusia, gizarte mugikortasunaren gakoari lotuta. Zer aukera izan zituzten nire gurasoek, aitona-amonek, eta zer aukera ditut nik? Frankismoarekiko ameskerian ikusten dugu hori, baldintzatzaile sozioekonomikoak baititu. Badakigu gure gazteen %38ri ez litzaikeela axolako demokrazia gutxiko herrialde batean bizitzea bizi kalitate hobea bermatzen bazaie. Hau da, alderdi sozioekonomikoek kezkatzen dituzte neurri handi batean: enplegu duina eta egonkorra lortzeko zailtasunak, etxebizitza eskuratzea, kontsumorako eta aisialdirako ondasunak izatea... Aurreko belaunaldien bizi auke-ekin alderatuta estatus galera- ren sentsazioa dute, eta horrek elikatzen du nostalgia hori.

Gazte kolektibo beraren barruan, zergatik ez dira emakumeak ideologia horrekiko hain iragazkorrak?

Emakume gazteak inoiz baino feministagoak dira, eta euren parte hartze soziala eta politikoa etengabe handitu da azken hamarkadetan. Ez datoz bat narratiba autobiktimizatzaile horrekin.

Ideologia horiekin lotuta, erlijio katolikoaren gorakada gertatzen ari al da?

Ez dakit gaur egun hemen kausa-efektu erlazio bat ezarriko nukeen, ez behintzat modu homogeneoan. Izan ere, erlijio adierazpenean oso anitza da egun Estatu espainola. Baina kutsu katolikoko kontserbadurismoak eskuin erradikalaren mugimenduaren zati bat egituratu du hasieratik, hau da, mugimendua elikatu du, gutxienez bere alderdi batzuetan. Beste agertoki batzuetan, Ameriketako Estatu Batuetan adibidez, talde



kristauak dira, gutxienez euren zati bat, eskuin estremistaren gorakadaren aliatu nagusiak.

Ekologismoa da talde horien jomugan den beste mugimendu bat. Ingurumena babesteko politikak mehatxutzat dituzte, ekonomiarentzat zein tradizioarentzat.

Hala da, eta, horretan, gainera, antiekologismoa eta Europar Batasunaren politiken aurkako jarrerak batzen dira.

«Joko arauak aldatzen ari dira komunikazio politikoan, komunikabideei ere eraginez. Osagai populistez betetzen ari dira interpretazio estandarrak»

Sareetako agitatzaileak, albiste faltsu edo desitxuratuen gorakada... Nola egiten zaie aurre horrelako fenomenoei? Informazio faltari desinformazioa gehitzen zaio; audientziek era guztietako kontakizun hutsalak edo mezu doktrinatzailak jasotzen dituztelako. Gainera, oso erraz eskuratzen dituzte sare sozialen, *influencer*-en eta abarren bidez. Sare sozialek etengabe bidaltzen dituzte mezuak, eta etengabe zulatzen dute gizar-

te-idearioa... Horregatik, oso garrantzitsua da komunikabideetako profesionalek sistema demokratikoetan duten erantzukizuna, eurak baitira errealitate soziala eraikitzen eta irudikatzen parte hartzen dutenak. Hemen uste dut garrantzitsua dela ulertzea ezin dela *influencer*-ekin borroka bat abiatu iritzi publikoan eragiteko kapital sinbolikoa eta soziala kontrolatzeko. Hedabideen jarrera etiko eta arduratsuak oinarri izan behar du, gertakari kontrastagarrietan eta kokatze zintzo eta gardenetan abiatuta eraikitako interpretazio esparruei eusteko.

Askotan, ezkerari egozten zaio eskuin muturraren arrakastaren erantzukizuna, adibidez, migrazio politikekin lotuta.

Iritzen horren aurrean, nire lehen erreakzioa hau izango litzateke: nork egiten du ezker arduradun? Arriskutsua da diskurtso-erronkak onartzea, are gehiago nork okupatzen dituen ondo dakigun eserlekuetatik jaurtitzen direnean. Horrez gain, zein ezker ere galdetu behar diogu geure buruari, banaketak eta zatiketak etengabeak baitira. Nolanahi ere, ezkerreko sektoreek, alderdiek, talde militanteek, elkarteek, herritarrek jarrera argia eta irmoa izan behar dute: aktibismo inklusiboa eta arrazakeriaren aurkakoa migratzaileekin lotutako edozein proposamen edo ekintzatan. Isilik egoteak edo migratzaile eta errefuxiatuei buruzko ekimenak atzeratzeak balio demokratikoetatik urruntzen gaitu, eta kritikotasuna eta irmotasuna galarazten dizkigu autoritarismo adierazpenen edo adierazpen antidemokratikoen aurrean.

Graziak eta desgraziak

**Maidor IANTZI
GOIENETXE**

Txisteak ulertzea kostatzen zaie-netakoa naiz. Literalegia. Osaba Juan Joserenak gustatzen zitzaizkidan. Kontaketa hasteko hartzen zuen denbora lasaia, nola garbitzen zuen zintzurra eztul ttiki batzuekin, jartzen zion misterioa, eta batez ere nola eskapatzen zitzaion irria pasarte barregarrira ailegatzeaz zela. Atmosfera berezia sortzen zuen. Txiste bera ha-maikagarren aldiz errepikatuta ere ez genuen arretarik galtzen. Barne-barnean ditut bere txiste mitikoak eta bere umorea (hemendik nire oroimena eta omenaldia). Hegazkina galdu genuen egun hartako komentarioa, adibidez, familia osoa aireportuan barna lasterka

gindoazela. Bezperan musikal bat ikusia genuen, eta hala bota zuen, batere estutasunik erakutsi gabe: «Atzo antzerkia ikusten eta gaur egiten, kar-kar!».

Umorea sekulako tresna da; aunitzetan salbatzen gaitu eta une zoragarriak ematen dizkigu. Zer hoberik sabeletik ateratako irri algara bat baino, malkoz, puzkerrez edo pixaz lagunduta agian. Ezin kontrolatu, ezin gelditu... Inauteriak umorearen bestak dira, eta testuinguru horretan umorearen graziak eta desgraziak aztertu zituen Uxoa Anduagak hitzaldi batean, parte hori ere badielako. Euskal umorearen inguruan egin duen tesia azaldu zuen. Garai batean boladan egon zen eta oraindik egi-

ten segitzen duten “Vaya Semanita” saioari eta sortzen ahal digun sentsazio gazi-gozoari erreparatu zion. «Nork egin da? Nondik dator?» galdetu, eta euskaldunok espainiar Estatuan historikoki izan dugun irudiaz eta horren bilakae-raz aritu zen. Umorea behetik gora egin behar dela dioen baieztapena zalantzan jarri zuen, iradokiz hori ez dela beti aski, eta inauterietako adibide zehatzetan sartu zen. Gure herrian, iaz hautsak harrotu zituen KKK siglak zeramatzan karrozak. Halakorik egitekotan, parodiatzen ari zarela argi utzi behar dela ikasi nuen solasaldian. Bertzela mezu horiek jendartearen iruditerian txertatzen eta normalizatzen ariko zara. •

Mina

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Mina neurgailu unibertsala da. Kirolari ibilbidean ikasi nuen, baina bizitzak berak ere edozein esparrutan ikasgai gordin bezain argiak ematen dizkigu.

Mina sentitu dut kirolean zein bizitzako proiektuetan ahalegin guztiak egin arren kale egitean eta frustrazioak gainezka egin didanean.

Mina sentitu dut giharrak lehertzeaz izan ditudanean edo belauneko aurrelo-tailua apurtzean, min fisikoa, alabaina, are okerragoa etorkizun ilunak eragindako zalantza eta burutazioek harrapatu nautenean.

Mina sentitu dut CCOO sindikatua langile batzuen eskubideen izenean herritar guztien eskubideak urratzeko

prest dagoela ikustean. Oraindik eta minberagoa egiten zait ikustea sobera direla urraketa horiek muturrera eramaten dituzten sasi-epaileak.

Mina sentitu dut EITB Maratoian Jaur-larritza bultzatzaile gisa harro agertzean, osasunaren kalterako makroproiektuetan herritarrei bildutako ehunka milioi euro xahutzen dituenen eta, aldiz, herritar berberak lehenen ardurapekoak diren ezinbesteko osasun-ikerketen alde borondatezko ekarpenak (bigarren aldiz) egin behar dituztenean.

Mina sentitu dut aurrez aurre kolpatu nautenean, hala ere, oinazea jasanezina egin zait ukabilkada saihetsetik edo gibeletik eman didatenean. Orduan, sumindura bihotz-sabelean iltzatu zait, ezin sakonago, betiereko.

Mina sentitu dut bikotekidearen mina sentitzean, erditzeaz ordu amaiga-beetan, muturreko oinazeetan zaurgarritasunak eraso, orro artean indartsu bezain ahul.

Mina sentitu dut erraietaraino senideari eta lagunari etorkizuna betirako okertu zaionean, inoiz berbera izango ez-eta, edo galdu dudanean heriotzan.

Mina neurgailu unibertsala da.

Barruak minez erreta daramatzazunean, ozpinduta bizi nahi ez baduzu, egin orro eta oka, eta kanporatu beldurrik gabe, askoz hobe sentituko zara, eta bai, nago une egokia dela benetako laguna alboan izateko.

Ezerk ez badizu minik ematen, kezka zaitez... •



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK





«Arenza» izenpean musika eta dantza tresna tradizionalak modu artisaun egiten ditu Arzallusek.

Andoni CANELLADA | FOKU

infraganti

ANDONI ARZALLUS

Esku propioz eta pazientziaz, bertute baino derrigorrezko baldintza dela jakinik, egiten ditu musika eta dantzarako tresna tradizionalak. Luthier hitza handiegia omen, baina artisautzaren munduan profesionalki murgiltzen ari da. Ondarea jaso eta berritu nahian dabil eta Gipuzkoan halako lanak egiten dituen artisaun profesional bakarra da.

Elkarrizketa
entzuteko moduan
Naiz Irratiko
audioetan

naiz:irratia



Toki «pribilegiatu» batean, Usurbilgo Etxe-beste kalean, herriko plaza nagusiaren albo batean du tailerra Andoni Arzallusek (Usurbil, 2001). Luthier hitza «handiegia» gelditzen zaiola dio; erosoago sentitzen da artisaun izendapenarekin. Bere esku propioz lantzen du egur tropikala, musika eta dantza tresna pieza

errepikaezin eta erreplikaezina egiteko. Arenza tailerrean sortzen den tresna bakoitza bat eta bakarra baita. Artisautza hitza latinezko *artis*, artea edo trebetasuna, eta *manus*, eskua, hitzetatik dator. Eta zentzu osoa ematen dio Arzallusen lanari. «Eskuz egiten ditut, ez diot logikarik ikusten teknologia edo makina automatikoa erabiltzeari eskuz egin beharreko lan batean». Laguntza pixka bat du,

noski, tailerreko gela nagusian ditu 60ko hamarkada inguruko tornu berde bat eta bestelako makinak lana arintzeko, baina egun garatuagoak diren teknologiak ez ditu erabiltzen. Zizelak, lixak eta bestelako erremintak dira nagusi Arzallusenean. Orain, musika tresnak egiten ditu Arzallusek. Baina musika tresnekin harremana lehenagotik du, musika tradizionaleko instrumentu jolea

baita lehenagotik. Formazioz perkusionista da. Herriko musika eskolan ikasi zuen. Horrez gain, Hernaniko hainbat elkartetan jotzen du. «Kuriostateak eramanda», txirula, txistua, gaita nafarra eta alboka jotzen ere abila da. 2021ean hasi zen instrumentuak konpondu eta egiten. COVID-19 gaitzaren ondorioz murriztutako aisialdiak imajinazio ariketa handiak eragin zituen eta hori izan zen Arzallusen kasua. «Garai hartan ezin genuen kanpoan jo eta, ondorioz, pentsatu genuen modu batean edo bestean, kanpoan egin ezin genuen hori etxe barruan egitea izan zitekeela irtenbide bat».

Lagunarteko elkarrizketa moduan hasi zenak forma handiagoa hartu zuen gero. «Batek esan zuen interesgarria izan zitekeela tornu txiki bat erosi eta guretzako makilak eta antzeko kontuak egiten hastea». Esan eta egin. Hiru lagunaren artean hasi ziren lanean. Tornua eta erreminta batzuk lortu eta «trasteatzen» hasi ziren. Berak bakarrik jarraitu du. «Ez zitzaidan hain gaizki ere eman eta hobetzen segitu dut gaur egun arte». Norekin frogatu ere badu. Anaia ere perkusio jolea da, egun kontserbatorioan ikasten du eta hark frogatzen ditu Andoniren tresnak. «Hark esaten dit zer aldatu. Mailan gora go dagoen norbaitek aholkatzea beti da komenigarria».

Hainbat arrazoi pilatu zitzaizkiola azaldu du. Hasteko, kuriostatea eta beharra, «ezin baikenuen kalera atera»; biek neurri berean bultzatu zuten Arzallus musika instrumentuak egiten hastera. Errelebo faltaren hutsunea ere nabaritu zuen hasi zenean. «Jende asko jubilatutako egin da edo hilda dago. Gazteren batek hemen sar-

tu beharko zuela pentsatu nuen». Musika tresnagintzan formatzeko eskolarik ez dago Euskal Herrian. Profesionalki horretan jardun nahi zuela erabaki zuenean, kanpora ikastera joateko erabakia hartu zuen. Lehen urtean Vigoko Arte eta Ofizioen Eskolan egon zen. Gaita galiziarra eta flauta tradizionalak egiten ikasi zuen bertan. «Hemengo eta hango musika tresna tradizionalak nahiko antzekoak dira. Fisikoki eta mekanika aldetik ere bertsuak dira».

Formakuntza ofizialaren bidea hartu aurretik, halere, Arzallusek bestelako bide bat jorratu zuen: jubilatzeaz ziren artisauengana jo zuen haien ondarea jasotzeko. Aurrez, ordea, modu autodidaktan hasi zen ikasten. Frogatu, erratu eta berriz hasi. «Gezurra dirudi, baina Interneten informazio asko dago eta beste artisauetara begiratzaz asko ikasten da. Behin kokatua nengoela inguruko artisauengana jo nuen, konfiantza nuen haiengana hurbildu nintzen. Haien sekretuak ikasi nituen, esperientzia eta denboraren poderioz urtetan landutakoa, alegia».

Otzak Jose Ossesen alboan albokak egiten ikasi zuen. Tolosan, Joxe Manuel Agirre perkusiogilearekin adabakiak jartzeko eta danborrak tenkatzeko teknikak jaso zituen. Salvador Martinez Lizarrako gaiteroa zenarekin dultzaina edo gaita nafarrentzako ahokoak egiteko kanaberak nola jaso ikusi zuen. Bertatik bertara jaso zuen jakinduria hori. Ofizioa eskuekin egin eta begirada biziz jasotzen baita. «Euskal Herrian ez dago musika tresna tradizionalen inguruko formakuntza. Gauzak diren bezala, mundu hau beti



Usurbilgo erdigunean dauka tailerra Arzallusek. Andoni CANELLADA | FOKU

izan da sekretismoaren inguruan eraikitako mundua».

Arzallusek azaldu du musika tresna tradizionalen negozioa ez dela bereziki eskari handia duen eremua. «Beti behar da eta beharko da norbait instrumentuak egin eta konpontzen dituen, baina ez dago dozena bat tailer, asteko bost eguneko jornada batekin eta lanaldi osoan. Ez dago jardun hori elikatze eskaririk», eta, beraz, askok ez dute ofizioa irakatsi nahi izan, haiena babestu nahian. Belaunaldi berrien jarraia beste bat da, ordea: «Hemen, edozein eskola edo jatorrikoa izanda ere, ateak beti izango ditu zabalik edonork. Sekretismo horretan ez dut si-

nesten. Hemen kultura eta ondarea bizirik mantentzeko garrantzitsuena edo gakoa partekatzea da, transmisioa. Kate baten katebegi bat gehiago naiz».

Musika tresnak egiten ditu Arzallusek, baita konpondu ere. Kontsumismoak jota dagoen mundu batean, musika tradizionalaren eremua ez da salbuespena. Kalitatea da produktu artisau batek duen abantaila bat. Beste abantaila bat: neurri edo gustura egindako eskariak egin ditzakezula. «Hemen munduko beste ezer ez didate eskatzen». Baina nabarmendu du behinola egindako lan bat: Trio Zukan taldeari kontzertu

Pandemiaren testuinguruan hasi zen lagunartean musika tresnak nola sortu ikasten. Musikaria da Arzallus, eta, kalean jotzeko aukerarik ez zenez, musika etxera ekarri zuen

Musika tresna tradizionalak nola egin ikasteko eskolarik ez da Euskal Herrian. Galizian formatu zen Arzallus, baina aurrez artisauen atea jo zuen ofizioa bertatik bertara ezagutzeko

edo sasoiei dagokionez, lana nahiko egonkorra dela dio. Akaso sansebastianak bezalako festak dira lan handiena pilatu dakioken garaia, «danbor eta barril guztiak fabrikatu edo konpondu behar izaten dira Donostian eta Azpeitian». Orokorrean, ordea, beharra une orokoa izaten da: «Musika tresnak edo konponketak behar dituen jendeak urte osoan jotzen duenez, bertsu mantentzen da eskaria».

Erraldoekin dantzan ere aritzen da Arzallus, eta antzerkigintza ere gertutik bizi izan du. «Hemen, arraroa dena, ez da egun bakarrerako izaten arraro!». Ez da geldirik egotea, eta tarteka dantza taldeentzako materiala ere egiten du: makilak, ezpatentzako heldulekuak, brokelak, buruzagi testiguak... Askotan falta izaten diren pieza bat azaldu du, eta, horrez gain, bere ikuspegitik «berrinterpretatu edo hobekuntzak egiten saiatzen» dela dio. Fabrikazio aldetik ez du «gelditasunik» sumatzen, baina, estetikari dagokionez, «musika tresnak beti ikusi izan ditut forma edo itxura berdinekoak. Nire helburua ere bada estetika horrekin pixka bat haustea, zigilu muturretara joan gabe, baina nire zigilu pertsonala jarrita». Galizian teknika batzuk ikasi eta ekarri egin ditu. Besteak beste, torneatuen forma aldatu du, eraztunen forma berriak sartu ditu... «Batzuei gustatu zaie eta beste batzuei ez. Baina gutxienez zerbait des-

baterako neurri sortutako instrumentu berezi batzuk egin zituen, «banbu kanabera nahiko lodi batzuekin, raka-raka batzuk egin nizkien». Estimua, ordea, egindako pieza guztiei die neurri handiagoan ala txikiagoan: «Zuregana jotzea eta norbait zuk egindako musika tresna bategatik dirua ordaintzeko prest egotea beti apreziatzen da».

Euskal Herriko bezeroak ditu normalean, baina Galiziatik eta Errioxatik ere jaso ditu enkarguak. Musikariak dira batzuk eta kalean jotzeko tresnak nahi dituzte, beste askok dekorazio modura jartzen dituzte instrumentuak etxean. «Denetik dago». Lan kargari

Musika instrumentuen muina musika ona egitea da, noski, baina estetika aldetik ere berrikuntzak garatzen eta txertatzen saiatzen ari da usurbildarra. Edertasunak laguntzen du

berdina egin dut». Itxuraren garrantzia handia dela dio, «instrumentu bat beti sartuko zaizu begietatik», baina argi du zein den funtsa: «musika tresna batek musika egin behar du, musika ona».

Urte batzuk igaro dira afizioa ikasgai izatera igaro zenetik, eta, orain, ikasgaitik ofizioa atera nahi du Arzallusek. Musika eta dantza instrumentugintza artisaua ogibide bihurtu nahi du, eta, horretarako, autonomo egiteko tramiteetan murgilduta dabil. «Hemen ordutegi finkorik ez dago, hori edozein autonomok daki. Zortzi ordu zorrotz ez ditugu egiten». Zorionekoa dela dio hala ere; etxe azpian du tailerra, familiak utzita. «Oso eskertuta egongo naiz beti». «Goizeko zortzi eta erdietan hona jaitsi eta arbelean ditudan enkar guak egiten hasten naiz».

Eskuak dira Arzallusen lan tresna nagusia, noski. Baina hainbat makina eta erremintatan inbertsioa egin behar izan du. Altxor txikiak ere eskuratu ditu. Aspaldiko itxura duen tornua «60ko edo 70eko hamarkadakoa da. Gaur egun goak baino hobeto dabil, apenas ez dit arazorik eman!». Hasieran tornu txiki batekin aritzen zen arren, segituan handiago bat eskuratzeko beharra sentitu zuen. «Cumbre markako 022a da. Marka eta modelo zehatz hori nahi nituen. Zorte handia izan nuen. Ez nuen espero, baina Donostiako industrialde batean topatu nuen». Gehiago kosta zitzaion tailerren sartzea. Pisuaz gain, bi metro ditu luzeran eta sakoneran beste metro bat inguru. Bere beharretara apur bat moldatu du. Eskuz ematen die forma kanpotik musika tresnei, eta, beraz, eskuz torneatzeko euska-

Bakarka eta autonomo gisa jarraipena eman dio lagun giroan sortu zen proiektuari. Familiaren babesa izan du horretarako eta aitortu du zaila dela halako egitasmoei ekitea

rri bat eta motor txiki bat gehitu dizkio. Tornuari bizkarrara ematen zorrotzari bat du, zurgintza lanetarako propio sortua. Zulo melodikoentzako fresatzeko eta zulatzeko makina bat du, eta, noski, horrez gain, labanak, pintzelak, lixak eta eskuzko bestelako tresne-

ria mordoa. Hasieran imitazioz egiten zuen lan, baina Vignon prozesuaren garrantzia zein pisuzkoa den ikasi zuen: «Asko lagundu zidan kanpora joateak, ez soilik musika tresnak egiten ikasteko, alderdi bakoitza lantzeak zertan eragiten zuen ere ikasi nuen. Hori asko eskertu dut, egia esan».

Egun bakoitza desberdina da Arenza tailerrean, enkargu motak eta kopuruak asko eragiten baitu. Arzallusek sare sozialak erabiltzen ditu bere lana ezagutzera emateko. «Lehenik eta behin, sare sozialen aro

honetan jaiotakoa naizelako, eta, beraz, erraztasun hori ere badudalako». Hainbat publikotara iristeko modu egokia iruditzen zaio, heldu zein gazte. Momentuz bakarka arituko da tailerrean lanean, ez du inguruan prest den kiderik, eta aitortu du ez dela erraza halako proiektu edo negozio bat martxan jartzea, baina gogoa eta ilusioa izanda maldak asko txikitzen direla dio. «Zugan sinestea da garrantzitsuen».

Garazi CASTAÑO



Arzallus 2019an hasi zen instrumentuak konpontzen. Andoni CANELLADA | AGENTZIA

**Ainhoa ALVAREZ ARANA**

Donostiako EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Ikaste-analitika: Ikasleen arrasto digitalak ulertzen

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesu egoki baterako, ezinbestekoa zaie irakasleei ikasleen ikasketa prozesuaren inguruko informazioa jasotzea. Informazio horrek lagunduko dio irakasleari klaseen erritmoa doitzen, estrategia aldatzen edo norbait atzean geratzen denean garaiz detektatzen eta neurriak hartzen. Eskola presentzialetan, informazio hori modu desberdinetan jaso daiteke: begirada bat, keinu bat, zantzak aurpegi bat. Baina... zer gertatzen da gaur egun geroz eta gehiago erabiltzen diren ingurune digitalean?

Ingurune digitalean, egoera guztiz aldatzen da, irakasleek ez dute informazio hori jasotzen eta beste modu batzuk bilatu behar dituzte jakiteko ikasleak zer egiten edo/eta ikasten ari diren. Zuzeneko informazio jasotze hori desagertzen bada ere, ikasle baten aplikazio edo sistema digital batean edozein akzio aurrera eramaten duenean, datu bat sortzen du. Klik bakoitzak, bistaratze bakoitzak, mezu bakoitzak arrasto edo seinale digital bat utziko du.

Arrasto digital horiek jaso, tratatu eta informazio pedagogiko erabilgarri bihurtzen duen alorrari *learning analytics* edo ikaste-analitika deritza. Ikaste-analitika hiru pausu nagusi dauka. Lehenik, ingurune digitaleko ikasleen elkarrekintzen datuak jasotzea eta biltzea. Bigarren, datuak aztertzea hainbat teknologia erabiliz, esate baterako, datu-meatzaritza, ikasketa automatikoa, modelizazioa edo iragarpen-teknikak. Pausu horren helburua, datuetatik irakaskuntzarako interesgarri izan daitekeen informazioa erauztea da, hauen antzeko egoerak identifikatuz: zein ikasle ari dira irakasgaiarekin arazoak izaten, zeintzuk diren irakasgaiaren zatirik zailenak, ikasleen emaitza aka-

demikoak aurreikustea, zeintzuk ez diren lanean ari...

Hirugarrenik, erauzitako informazioa aurkezten zaio irakasleari irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak hobetzeko asmoarekin. Informazio horren aurkezpena ulergarriagoa egiteko eta irakasleari erabakiak hartzen laguntzeko, *dashboard* edo aginte-panelak eta adimen artifizial garatzailea erabiltzen dira gehienbat.

Hau da, irakaslea jada ezin denean gela barruko ikasleen ekintzetatik bakarrik gidatu irakaskuntza prozesua hobetzeko, ikaste-analitika lagundu dezake egoera esanguratsuak identifikatzen. Ondorioz, hezkuntza-ingurune hibrido eta digitalen erabilerak geroz eta gehiago garatzen ari den honetan, ikaste-analitika ahalmen izugarria du hezkuntza-proze-

suen ekitatea, pertsonalizazioa eta eraginkortasuna hobetzeko.

Ikaste-analitika egoki erabilia oso onuragarria izan badaiteke ere, ikasleen datuen erabilerak etika eta pribatasun galdera garrantzitsuak zabalitzen ditu. Zein neurritan da onargarria ikasleen jardura monitorizatzea? Nork erabakitzen du zein adierazle diren benetan esanguratsuak? Nola ekidin honelako sistema batek ikasle baten "arriku-egoera" etiketatzea adibidez, eta horrek berekiko irakaslearen pertzepzioa eta jarrerak aldatzea? Gakoa ez da soilik teknologiak zer egin dezakeen, baizik eta zer den etikoki onargarria eta pedagogikoki zuzena.

Gaian sakontzeko, hona hemen ikastaro interesgarri bat: <https://nanomooocs.com/course/introduccion-a-la-analitica-de-aprendizaje-2/>.



Ingurune digitalean, irakaslearentzat zailagoa da ikaslearen ikaste-prozesua jarraitzea. GETTY

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



LUIS ZIARRUSTA

MARTXOAREN 3A BETIKO JASO ZUEN ARGAZKITAN LUIS ZIARRUSTAK

Aurten berrogeita hamar urte betetzen dira 1976ko martxoaren 3tik, Euskal Herriko historia hurbileko egun tragikoenetako bat. Arratsaldeko bostetan, greba orokorraren erdian, milaka langile bildu ziren Gasteizko San Frantzisko elizan batzarra egiteko. Bost langile hil zituzten eta ehun baino gehiago zauritu, gehienak balaz, Espainiako Poliziak eliza hustean egindako tiroen ondorioz. Aurretik Eliza gaseztatu egin zuen Poliziak, langileak barruan zeudela. Jendea ihesi ateratzen hasi zenean, Poliziak modu indiskriminatuan tiro egin zien ihes egiten saiatu zirenei, baita kanpoan bildutakoei ere. Egun horretan bertan hil ziren Pedro Maria Martinez Ocio (27 urte) eta Francisco Aznar Clemente (17 urte). Romualdo Barroso Chaparro (19 urte) martxoaren 4an hil zen; Jose Castillo (32 urte), martxoaren 7an; eta Bienvenido Pereda (32 urte), apirilaren 5ean. Luis Ziarrusta 21 urteko argazkilaria gasteiztarak, "El Correo"-ko langileak, gure oroimenean grabatuta geratu diren irudiekin dokumentatu zuen egun beltz hura. Hiria blokeatuta zegoela, argazki-bobinak pertsonalki Bilbora eramatea erabaki zuen, bere Citroën 2CV autoan. Bi ordu eman zituen Gasteiztik ateratzeko, kearen, polizia-kargen eta barrikaden artean. Haietako batekin topo egitean, autoa segundo batzuetan gelditu zuen eta, barrutik, Nikon kamerarekin -24 mm eta Kodak Tri-X filmarekin-, egun horretako argazkirik ezagunenetako bat egin zuen. Erlojuaren kontrako lasterketa horri esker, "El Correo"-k martxoaren 4an argitaratu zituen gertaeren lehen irudiak. Hurrengo egunean, egilearen baimenik gabe, egunkariak Europa Pressi saldu zizkion argazkiak eta nazioarteko hedabideetan agertu ziren. Mende erdi geroago, Luis Ziarrustaren irudiak gure herriaren memoriaren parte dira: laguntzen digute Poliziaren indarkeriaren ondorioz hil zirenen oroitzapena bizirik mantentzen eta egun hartan sufritu zutenen oroitzapena bizirik mantentzen.

051 bidaia

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan
GARArekin
doan

eta gainera...

CRESPI D'ADDA

LANGILE HERRIXKA
LOMBARDIAN

GRAFITIAK

BRASILGO
KALEETAN

GALAPAGOAK

«IRLA SORGINDUAK»,
ITSASOTIK

LASTRAKO KASTROAK

HIRU MILA URTE, ARTE
ETA ERKAMETZ ARTEAN

TEHUACÁN-CUICATLÁN

LURRAREKIN ESTUKI
LOTUTA

Elkarriketa Ricardo Hernani **Egin planak** Irulegitik Pompelora, hiri baten jatorrira bidaia; 'Amama', zazpi ipuin koreografien bidez kontatuta; Atharratzetik Bilbora, hamar egunez korrika... **Munduan pasieran** Gaudi Urtea; Gereziondoak, amu turistiko Txinan; Monet, gogoan, mendeurrenean; Elefanteen espektakulua, debekatuta; 'Art on Your Doorstep', National Galleryn;

